



NOELA ETA BERZE KANTA SPIRITUAL BERRIAK

Iturria: *Noelak (eta kantika espiritual berriak)*, Ioannes Etcheberri Ziburukoa
(Lino Akesoloren edizioa). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1970.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibuNoelak.htm>

Joannes Etcheberri, Ziburukoa

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

DEDIKAZIONEA

Jesus Kristo Jaunari eta Saindu guztiei

Jesus Kristo eta Saindu
zeruko dohatsuak:
entzun etzatzue gogo
onez gure kantuak.

Laudatu zaituztegunaz
geroz behar zeruan,
atsegin har ezazue
has gaitezen munduan.

Zeru-lurrek diozoten
bethi elkarri ihardats,
eta guk dezagun gure
eginbidea ikhas.

Ezin zeruan gaitezke
sar aski trebatuak,
aingeruez zaretenez
geroztik laudatuak.

Molda dietzagutzue,
arren, geure mihiak,
zuetzaz diñe daitezen
aurkhi gure aheriak.

Bihur diezazuegun
laudorio doblea:
zergatik darokuzuen
zerok eman antzea.



APROBAZIONEA

Ikhusi dugu eta irakurri Iaun Bikario Jeneralen mezuz Eskarazko Noel eta Kanta espiritualezko liburutxo hau Ioannes Etxeberri Doktorak egiña, zeñetan ez baitugu ediren deus fede katoliko sailduaren kontrako gauzarik; hala daritzagu progotxo delat bat bedera debozitonean berotzeko, eta merezi duela inprimaturik ilkhi dadin. Egina Donibanen Agorrilaren 6, 1630.

P, De la Masse,
Donibaneko Erretora.

P, de Urthubie,
Doktor Theol.

LAUDORIOZKO KOPLAK

Ioannes Etxeberri

Doktor teologo liburu bunen egileari adiskideak

Nik behintzat aithortzen dut
zure zordun garela,
gure ilhunbetik khentzeko
zuzia zu zarela.

Zaharturik zioana
eskara erortzera,
Etxeberrian sarthurik
berriz doa sortzera.

Erdaldunak ahal doazke
zein bere herritara,
gogat eginik, galduko
eztutela eskara.

Aspaldion zegoena
guztientzat azpiko
Etxeberrik altxaturik
gorena da iarriko.

Eskaldunak hel bekizkit
haren ohoratzera,
zeren eskara eman duen
erdararen gañera.

Stephanus de Hirigoiti

Doctor medicus



JOANNES ETCHEBERRI

Liburu hunen egileari bere adiskideak koplak

Etzare zuzenez baizen
 estimatzen lehena.
 Tubalen hitzak ahoan
 tuzten eskaldunena.
 Zeruetan aingeruek
 kutzaz dute mimresten
 harrizko zure buruak
 hanbat nola dirauen.
 Etxeberri zaren, harri
 egina gogorrenez.
 Bethi berri izanen zare,
 behin ere zahar ez.
 Etxearen leihoak zuk
 eztitutzu zarratzen;
 Rhima, aitzitik, ditutzu
 raroenak banatzen.
 Raphael lagunekien
 rabitua espantuz,
 iausti da zeruetarik
 ikhustera zu kantuz.

P. de Arganaratz
Praedicator

LIBURUTXO HUNEN PARTEAK

Liburutxo hunek laur parte ditu.

Lehena da Noelez, edo Jesus Kristoren sortzearen gañeko kantez.

Bigarrena, Jesus Kristoren biziaren misterioen gañeko berze kantez.

Hirurgarrena, Jainkoaren eta Sainduen ohoretako kanta batzuez orenen gisa.

Laurgarrena, Saindu partikular batzuen kantez.

Cantate Domino canticum novum: quia mirabilia decit. Psal. 97.

Iaunari diotzutzue
 kanta aire berriak,
 zergatik egin baititu
 obra miragarriak.



**LIBURUTXO HUNEN
LEHENBIZIKO PARTEA:
NOELEZ**

Noelak bi partetan berezten dire. Lehenbiziko partean dire Jesus
Kristo sortze-aitzineko gauzen gañean Noelak.
Abendokotz.

Bigarreanean, Jesus Kristoren beraren gañean Noelak.
Eguberri bestetakotz.

NOELAN LEHENBIZIKO PARTEA

Jesus Kristoren sortze-aitzineko gauzen gañean noelak, edo kanta
berriak.
Abendokotz.



PROFETEN AGINTZA JENERALEN GAÑEAN

Abendokotz
NOELA

O Adamen hazi kalte
handian eroria:
berri onen entzuteko
idekak beharria.

Sarri ilkhitzera hoa
aizen lazeriatik,
Aitak bidaldurik bere
Semea hiregatik.

Eztezala pensa geure
buruz mintzo garela,
mintzarazitzen giatik
geure Iaunak hunela.

Zeru gorari agoka
suspiraz, o zerua;
egor azu bidalduko
duzula agindua.

Airea, zuk ere isur
azu ihintz garbia,
bai eta iustuz egin,
hedoia, zuk uria.

Lurra, ideki zaitea
eta ekhartzu Mesias;
hala agoka suspiraz
eta auhen handiaz.

Orain, bada, altxa ezak
heure gogo tristea,

entzutean iausten dela
Iainkoaren Semea.

Hire amoreak gatik
hire gorputz herbala
iauntziko dik egiteko
hiri ontasun ahala.

Hire faboretan hillen
dik herio larria,
egundaño konbatean
nihork ezin ezia.

Bere oiñen azpian dik
burtaz erabilliko;
haren kaptibo guztiei
bihotza altxatuko.

Sanson sendoa ohi duk
sendagallez famatu,
zeren zuen Filistinen
kanpo osoa zehatu.

Sanson hunek eginen dik
obra handiagoa,
zeren garaituko baitu
ifernuko kanpoa.

Sanson sendoa oraño
handiro duk ospatu,
zeren zituen Gazako
portaleak altxatu.

Sanson hunek eginen tik
are gogorrakoak,
iakiteko zeru eta
linbo illhunekoak.



Balentia hauk guztiak
eginen tik hiretzat:
haren harmek ebakitzen
eztie berzerentzat.

Allegera adi, beraz,
berri hauk entzuteaz,
eta kantatzen has adi
eman zaiken antzeaz.

O Jesuskristo, Profeta
sainduz agindua,
balia diezaguzu
zeure iauste saildua.

PROFETEN ERRAN PARTIKULARREN GAÑEAN NOELA

Jakob. Gen. 49

Iudaren kastari khentzen
zaionean khoroa,
orduaz etorriko da
Mesias mundukoa.

Agg. 2

Zeru lurrak ditu Iauinak
betan iharrosiko,
orduaz ezta iaustera
hañitzik beranduko.

Malach. 3

Bialduko zare, Joannes
Baptista, aitzinera,
egin beharko dituen
bideen aphaiztera.

Ezech. 44

Donzella hautatu baten
ganikan da sorthuko,
zeña erdiz gero baita
Birjiña geldituko.

Abacuc 3

Iesusen izenaz haurra
izanen da deithua,
zeñen aiphatzeak baitu
paguturen iustua.

Mich. 5

Sorthuko da Betleengo
hiriaren aldean:



ohore hura izanen
du hak berzen gañean.

Baruch 5

Haren sortzean izarrek
dute distiatuko,
zein bere ohatzean dire
bozkarioz iauziko.

Isai.

Sehaska faltaz manjater
batean da emanen.
asto-idiak han dute
iauntzat ezaguturen.

David Psal. 17

Erregeak ethorriko
zaizko adoratzera,
eta bihotz humil batez
dohañak eskaintzera.

Hier. 31

Haren kontra da errege
kruel bat altxaturen,
hura hil ustean ditu
haurrak masakraturen.

Osea 11

Burasoek ioanen dute
ihesi Ejiptera,
tiranoa hil denean
bihurtuko herrira.

Zacharias 39

Israelen izanen da
handi haren ospea,
jentillek ordean haren
laudatuko legea.

SIBILLEN PROFEZIA JENERALEN GAÑEAN

Abendokotz

NOELA

Jende onak, othoi, entzun
zatzue gure hitzak,
ez gaitzatzuela arbuia
zeren garen neskatxak.

Birjiniteagatik
Iaun onak profetia
eman daroku, merezi
ez ginduen saria.

Guztiak gare hamabi
erresumetakoak,
guztiak hitz eta mihi
diferentetakoak.

Elkhar ezagutu gabe
Iaunak bat egin gaitu,
ezen hamabiak gare
hitz batean aurkhitu.

Entzun etzatzue, bada,
gure koplak berriak:
denborak erakutsiko
tu direla egiak.

Iongoinkoren semea
iautsiko da lurrera,
aita Adam eta haren
kastaren libratzera.



Orduraño egonen da
zepoetan lothurik:
hark kanpora emanen du
burdiñak zathiturik.

Hari humilduko zaio
heriotze kruela,
ezaguturik garaia
haren gañean duela.

Guztiek, bada, zaitezte
allegera berriez,
zeruetako Kortetik
freskoki ethorriez.

SIBILLEN ERRAN PARTIKULARREN GAÑEAN

Eritaea

Iaunari urrikaldurik
gizonaren kaltea,
erremediatzera du
bidalduko semea.

Cimmeria

Gatzatuko da Birjina
baten sabel garbian,
gizonaren obra gabe
xahutasun handian.

Helespontica

Palestinan famatua
da Iuduen herria,
Birjinak konzebituko
han du seme Mesia.

Tiburtina

Betleenen iaioko da,
Nazareten haziko,
Nazarenoa hargatik
Jendeak du deithuko.

Europaea

Monarka guztien hura
daiteke Nausia:
hura aithortuko dute
bere buruzagia.

Delphica

Profetek orobat dute
hura bere prinzea
ezagutuko, zeren den
zuhurtziaz bethea.

*Lybica*

Lege zaharra du berri
 batera aldatuko,
 zeña baita graziatzko
 legea deithatuko.

Agrippina

Delarik Jongoiko Seme
 argiz inguratua,
 halarik ibilliko da
 haragiz itzaldua.

Samia

Iudu gaixtoek diote
 zehar begiraturen,
 azkenean martirioz
 dute hillaraziren.

Cumana

Hirurgarren egunean
 piztuko da pagurik,
 zeruetako bidea
 arimei libraturik.

Persica

Hala haren herioak
 hillen du herioa,
 eta lehertuko suge
 herra handitakoa.

Phrygia

Iotzen duenean gero
 tronpeta izigarriak,
 iuiatuko tu Monarka
 eta Prinze guztiak.

APOSTOLUEK JESUS KRISTOZ JENERALKI ERRANEN GAÑEAN

Abendokotz

Noizbait entzun ditutzue
 debotki, o Kristauak,
 Profeta sailduen eta
 Sibillen errefauak.

Orain aldiz, bada, entzun
 etzatzue gureak,
 zeñak baitituzte hekin
 laudatzen ahaireak.

Hek agindu zuten Iauna
 guk dugu begietsi,
 ezen gu gintuen bere
 apostolu hautetsi.

Guk gehienik ginduen
 Harekin konbersatu,
 nola baikintuen bere
 mahain saildura hartu.

Halaber guti zerokun
 utzi gomendatua
 Haren izena munduan
 banatzeko kargua.

Hartarakotz, bada, gure
 hitzak entzun tzatzue,
 eta mundura ethorri
 dela sinets zazue.

Profeziak orain dire
 egiazki konplitu,
 Mesias hek agindua
 zergatik baita sorthu.



Guztiok, beraz, agurra
dagiogun behera,
zergatik ethorri baita
guztion salbatzera.

Idola guztiak dire
aldaretan harritu,
ezen guztiei ahoak
betan zaitze tapatu.

Hek ixildu behar zuten,
bañan gure mihiak
kanta biotzo haurrari
eresia berriak.

APOSTOLUEK JESUS KRISTOZ ERRAN TUZTEN HITZ PARTIKULARRAK KREDOA ESKARAZ

S. Petrus

Sinhesten dut Iainko Aita
ahal guztitakoa,
zeñak kreatu baititu
zeru-lur-itsasoa.

S. Joannes

Nik halaber sinhesten dut
Iesus Haren Semea,
zeñak reparatu baitu
gizonaren kaltea.

S. Iacobus

Espiritu Sainduaren
ganik zen konzebitu,
eta Birjina Maria
xahuaganik sorthu.

S. Andreas

Herio pairatu zuen
Pilatusen azpian,
eta Iosefek ehortzi
bere thonba berrian.

S. Philippus

Linboetara arimen
libratzera iausti zen,
eta gero hirurgarren
egunean piztu zenn.



S. Thomas

Zeruetara igan zen
eta Aitarenean
orain gloriosa dago
iarririk eskuñean.

S. Bartholomaeus

Handik ephe iakinean
iautsiko da lurrera,
hill eta bizi guztien
zuzenki iuiatzera.

S. Mathaeus

Nik oraño sinhesten dut
Espiritu Saindua,
Aita eta Sainduaren (Semearen)
ganik prozeditua.

S. Iacobus

Nik halaber aithortzen dut
Elizama saindua,
baita han dela Sainduen
balderna sakratua.

S. Simon

Nik ere aboatzen dut
hutsen barkamendua,
konfesioa hargatik
dela bai baptismua.

S. Iudas

Baita nik ere aithortzen
hilletarik piztea.

S. Mathias

Baita nik berriz bizitze
zorionez bethea.

ANUNZIAZIONAREN EDO GABRIELEN SALUTAZIONEAREN GAÑEAN NOELA

1. Nola Inkarnazionean laur persuna akort gerthatu ziren.

Laur presuna akort ziren
Inkarnazionean,
Aita, Seme, Espiritu,
Birjina ekin batean.

Iainko Aitak ikhusirik
herstu zela ephea,
reparatzeko Adamek
egin zuen kaltea.

Semea zuen haragiz
beztitzera ertxatu,
eta bere ohorea
itzultzera manatu.

Aitari iarri zitzaion
obedient Semea,
itzuliko zioela
gostarik bizitzea.

Amatzat zioen, bada,
birjina bat hautatu,
zeñarekin ez baitziren
berzeak konparatu.

Aitziñetik Iosek egin
zuen esposarazi,
zeren ez baitzuen nahi
mundua mintzarazi.



2. *Nola Gabriel Arkanjelia Ama Birjinari bildadu zitzaion.*

Noiz eta orduz baitzen muga
propioa hurbildu,
Arkanjelua zioen
enbaxada bidaldu.

Gabriel zen mandatari
sainduaren izena,
Iaunaren obeditzera
bethi prest zegoena.

Adats izpiak zituen
urrearen pareak,
eta begiak zeruko
izar klaren kideak.

Bisaiak zioen nola
marfillak distiatzen,
tresnek berriz diamanten
arauera onhesten.

Hegalek ere zioten
argitzen sorbaldetan,
falkonaren plumek nola
iguzki-arraietan.

Gabrielek zuenean
mandatua aditu,
haren konplitzeko bere
hala bazen prestatu.

Hegaldaka abiatu
zen Nazaret gañera,
bide ori xuxen hartu
Birjinaren etxera.

Birjina ediren zuen
bakharrrik othoitzean,

humilki kurtu zitzaion
gelan sarthu zenean.

3. *Nola salutatu zuen.*

Jongoiko Aitaketz zuen
salutatu korteski,
eta bere mandatua
deklaratu ederki:

Agur Maria, dohain eta
grazia guztiz bethea:
zurekin da munduaren
Iaun eta Erregea.

Ezen hautatua zare
berze emazteen artean,
alzifrea nola baita
zuaitz guztien gañean.

Zu konzebitzera zoaz
Iainkoaren Semea,
hala da haren beraren
egun borondatea.

4. *Nola Birjinak ibardatsi zion.*

Birjina saindua laztu
zen hain argi handiaz,
bai halaber espantatu
hain izkuntza berriaz.

Bisaiako kolorea
zitzaion ganbiatu,
eta hunela aingeru
sainduari mintzatu:



Ungi ethorri zarela,
enbaxada saindua:
ungi ethorri Iainkoaren
ezkutari hautua.

Ene beheratasunak
merezi duen baño,
Iaun onak ematen darot
ohore gehiago.

Esker handia itzultzen
diot orhoitzapenaz,
baita zuri hartu duzun
eneganako penaz.

Bañan nola, egin dio,
ni semez naiz erdiren,
Birjinitate xahuan
zeña bainaiz biziren?

Aingeruak ihardatsi
zioen birjinari,
Espiritu Sainduak du
egíñen gauza hori.

Zure kusin Elisabet
ia delarik zaharra,
sei hilabetetako da
seme batez izorra.

Orduan, bada, Birjinak
diutza aingeruari:
Ni Iaunaren neskato naiz,
konpli bedi hitz hori.

5. Nola Gabrielelek konjia hartu zioen.

Adiu, Jainko-semearen
ama bedinkatua:
hau da zuregana nuen
zeruko mandatua.

Gero bistatik zitzaion
faltatu aingerua,
eta izorra gelditu
zen Birjina saindua.



BISITAZIONEAREN GAÑEAN

NOELA

Gabrielen erranaz zen
orhoit ama Birjina,
semeaz izorra zela
Elisabet kusina.

Lehia handiz en haren
ikhustera partitu,
bide luzean bakharrik
oiñez zen abiatu.

Ikhe eta iaustegia
zituela pasatzen,
humilki zitzaion zahaits
eta berroak khurtzen.

Elisabeten etxera
heldu zen unhatua,
kortesiaz salutatu
bere kusin saildua:

«Ungi ediren zarella,
Elisabet maitea:
ungi ediren, emazte
guztien ohorea.

»Zeru gorek halakotzat
zaituzte ezagutu,
Gabriel Arkanjeluak
hartzaz nau seguratu».

Elisabetek ekhusi
zuenean Birjina
bere lekhotik iaikirik
ioan zitzaion aitzina:

«Ungi ethorri zarella,
o Birjina saildua,
ungi ethorri, donzella
guztietako hautua.

»Uste ez nuen ontasun hau
niri nondik heldu zait,
ikhustera Iainkoaren
Ama non heldu baitzait?

»Zure presenziak darot
bihotza allegeratu,
sabeleko haurrak ere
bozkarioz salutatu».

Ama bezala orobat
haurra mintzatuko zen;
baña orduko estatuak
etzioen agintzen:

«Ungi ethorri zarella,
munduaren iabea,
ohoratzera baitzare
heldu muthil zeurea.

»Zeru-lurretan zaitzula
laudorio kantatu
ene ohoratzeko zeren
hanbat zaren baxatu».

Elisabeten hauzoa
ethorri zen lasterrez,
Ama Birjina saildua
salutatu beharrez.

Boztu ziren ikhustez
haren begitarrea,
eta guztiek aithortu
zorionez bethea.



Iainko onari eskerrak
ziotzoten bihurtu,
beregainki Birjina amak
aire eder bat kantatu.

Elisabet kusiñaren
egotu zen etxean,
laundoni Jauni semeaz
erdi zedin artean.

Erdi zenean Birjina
bihurtu zen etxera
beta ere hurbiltzen
erditzeko ephera.

NOELEN BIGARREN PARTEA

Jesus Kristoren sortze beraren gañean noelak.
Eguberri bestetakotz.



AMA BIRJINA BETLEENA PARTITZEAREN GAÑEAN

NOELA

Eguberri bestetakotz

Herstu zenean Birjina
erditzeko ordua,
Errromatik ethorri zen
Augustoren manua:

«Ea, eskribatzatzue
paperean izenak,
bai, zenbateraiño moian
heltzen diren zuenak.

»Eskribatzatzue ene
notarien etxetan,
gizonak non ere sorthu
baitire lekhuetan.

»Neure suieta nahi dut
iak in nonbre iustua,
eta ekhusi hekien
ontasunen kontua.

»Eztezazuela falta
konplitzera manua,
entzuten duzuenan
trunpetaren soñua.

»Eta zuek, ene jende
kargua duzuenak,
guztietako zaretan
zuek arthatsuenak.

»Eskribuz ematzitzue
guztiak paperean,

eta dietzadatzue
laster bidal postean».

Iosef zaharrak manua
aditu bezain sarri,
berria ekharri zioen
Birjina sainduari.

Idi batez eta asto
batez berze moianik
mundu hunetan etzuen
Iongoikoak emanik.

Larretik zituen biak
etxera erakharri,
partitzeko prestatu zen
etxera bezain sarri.

Birjina iganarazi
zuen asto gañera,
ezen izorra handia
hurbiltzen zen ephera.

Bideori hartu zuten
Betleengo hirira,
manamendua zen legez
gizonaren herrira.

Alabaiñan biak doaz
alferrik Betleena,
ezen ez tuten izanen
ostatu han barrena.



BETLEENEN OSTATURIK EZIN AURKHITUAREN GAÑEAN NOELA

Birjina ona, norat zoaz?
Bihur zaite etxera,
ezen eztuzu zeren ioan
Betleen barrenera.

Iosef, norat daramazu
Birjina unhaturik?
Betleenen edirenen
eztuzu ostaturik.

Betleena direnean
arrotzak arribatu,
athez athe dute ostatu
etzitekotz galdatu.

Guztiek erran darote
lekhurik eztutela,
sotoak ere arrotzez
betheak dituztela.

O Iaun oraño Amaren
sabelean zaudena,
pazientki sofri zazu
egin zaitzun hobena.

Zure ganik iauregiak
dituzte erregeek,
zure ganik bere etxeak
jende xehe guztiek.

Xoriek ere dituzte
bere egoitzak airean,
arrañek urean eta
basa-abreek lurpean.

Alabañan, zuk eztuzu
gerizerik aurkhitzen,
guztiak dituzularik
egoitzaz probeditzen.



BETLEENEN OSTATURIK EZIN AURKHITUAREN GAÑEAN BERZE

NOELA

O Betleen, ezagutza
batera eztuena:
zeren eztuk ostatatzen
Iaun guztien gorena?

Zer ohore ahal uke
munduan handiago,
hire morraillen barnean
Hura sortzea baño?

Iosef, hire Semearen
urrikal bekik pena,
edo ezperen Birjina
erdi beharrarena.

Guztiarekin Betleen
ezta batre kantitzen:
aitzitik hiririk dire
arrotz tristeak ilkhitzen.

Ilkhi direnean dute
bazterrera behatu,
eta apartean etxe
xola bat nabaritu.

Han barrena sarthu dire
gaua iragateko:
ezen berze ostaturik
etzuten gelditzeko.

AMA BIRJINA ERDITZEAREN GAÑEAN NOELA

Bi esposak zirenean
borda xarrean sarthu,
ahalik hobekiena
bazuten gerizatu.

Biharamunean beha
zeudezela tristerik,
erditzeko orena zen
herstu uste kabarik.

Illhargiak zuenean
egin bide erdia,
seme ederraz erdi zen
Birjina Ama garbia.

Hargatik etzuen galdu
Birjinen ohorea:
ezeñ mundantzarik gabe
egin zuen Semea.

Emagiñaren etzuen
niola ere beharrik:
zerengatik ez baitzuen
sentitu dolorerik.

Bulharra zitzaion betan
mirakuluz ethorri:
edoskitzera zioen
eman bere Haurrari.

Amak ase zuenean
eta ungi unhatu,
denborak ziotsan bezain
ungu zuen troxatu.



Manjaterian pausatu
zuen lo egiteko:
ezen berze sehaskarik
etzuen emateko.

JESUS KRISTO ETXOLAN SORTZEAREN GAÑEAN NOELA

Hill beharrak, uzkitzue
gogoeta hantuak,
eta iaio denaz egin
pensamendu sainduak.

Ikhus ezazue zeuen
Iauna beheratua,
zeruetan handi dena
lurrean tipitua.

Munduan den on guztia
duelarik eskuko,
heiatxo at iauregitzat
hautatu du sortzeko.

Hura ere idekia
alde guztietarik,
sartzen zitzaiola haize
hotza saihetsetarik.

Theilla garabik etzuen
ez athe eta ez leihorik,
edo berze haizearen
kontrako gerizerik.

Guztiarekin hautatu
zen hain lekhu probeaz,
hauta zeitekeelarik
Herodesen etxeaz.

O dolore eta ondiko
bihotz urragarria,
sehaskatzat Iaunak duela
manjatera lohia.



Lumatxatzat lastoa du,
bururditzat belharra,
eta gañean estalki
bere Amaren hegala.

Hotzak has arazitzen du
haur gaxoa nigarrez,
Amak ahala egiten
kontentatu beharrez.

Abreek berotu zuten
bere hatsez Haurtxoa,
berze surik ez izanez
kontentatu gaxoa.

Edozeiñek balerrake
haur probetxo bat dela,
ikhusirik ezen gauza
guztiz gabea dela.

Betleem hiriak dio
ostatu errefusatzan;
sehaskarik ere eztu
etziteko aurkhitzen.

O munduko plazeretan
igeri abillana,
konsidera zak exenplu
Iainko-Semeak emana.

Sofritu duenaz gero
halako probezia,
sofri ezakek hik ere
munduko lazeria.

NOLA SALBATZAILLEA SORTHU ZEN GAUEAN GAUZA GUZTIAK BOZTU ZIREN NOELA

O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegratzen duzu
bihotzean kristaua.

Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen:
zergatik baitiozu
Salbatzaillea ekhartzen.

Gau illhunean ezta
ageri iguzkirik:
hunetan dakusagu
mirakuluz ilkhirik.

O gau desiratua,
zuzia duzu piztu,
zeñak mundu guztia
behar baitu argitu.

Argizagiak dire
bozkarioz dantzatzan,
ohi baño dutela
gehiago argitzen.

Aingeru onak berriz
hasi dire kantatzan,
tristeak dituztela
boztera gonbidatzen.



Errepikatzen dute
maniurez artzainek,
aradari lehiaz
ihardasten larrainek.

Engadin mahastia
gau hontan zen loratu,
Erroman oliozko
ithurburua sorthu.

Arrañak ere iauzi
ziren paguz urean:
abreak basoan eta
egaztiñak airean.

Gauza guztiak dire
gau hunetan pagutzen:
orobat egitera
gaituzte gonbidatzen.

Ifernuko oztea
ordean da tristetzen
haren zentzatzaillea
zerengatik den sortzen.

Idolak aldaretan
betan dire mututu:
aztiak arzooina
miretsirik galdetu.

Berzerik eztao
deus ere ihardetsi
haur batek dituela
baizen ixillarazi.

Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
Iainko-Semea sorthu.

NOLA SALBATZAILLEAREN SORTZEA GAUZA GUZTIEK OHORATU ZUTEN NOELA

Betleenek duelarik
Iaun ona mesprezaten,
berze kreaturek dute
alabañan prezatzen.

Zeruko izarrek dute
Iainkotzat ezagutu,
parabisuko Korteak
bere Erregetzat hartu.

Burasoak iarri zaizko
lurrean belhauriko,
bere Kreatzaille eta
Iabe ezagutzeko.

Aingeru onak halaber
hasi zaizko koplatzen:
artzainak bere presentez
nausi konfesatzen.

Erregeek ere sarri
behar dute ethorri,
izar berri bat dutela
bere aitzingidari.

Urre, mirra eta insensu
diote ekharriko:
buruko khoroak ere
fiotzak eskañiko.

Simeon aphezak ere
haren laudoriotan,
kanta eder bat kantatuko
du tenpluko athetan.



Xoriek orobat dute
egiñen errepika:
abre mutuek orobat
akorduzko musika.

Gauza guztiek fiñean
dute ohoratuko:
zerengatik sorthu baita
guztien progotxuko.

NOLA BERE BURASOEK HAURRA ADORATU ZUTEN

Manjateran pausatu
bezain sarri Haurtxoa,
belhauriko iartzen zaio
humilki burasoa.

Birjina bazter batean
eta Iosef berzean:
biak belhauriko iarri
ziren aren aldean.

Bere zerbitzo humilla
zioten prestatu,
eta hunela zitzaizkon
bihotz batez mintzatu:

«Zorionean zarela
sorthu, o Haur Saindua,
zergatik sorthu baitzare
salbatzeko mundua.

»Zuk behar duzu Adamen
falta erreparatu:
zuk linbotarika rima
kaptibuak libratu.

»Geure ungiegilletzat
Zu zaitugu aithortzen,
Zu geure Errege eta
Printzetzat ezagutzen.

»Zu adoratzan zaitugu,
o Haur paregabea,
zerengatik Zu baitzare
Iainkoaren Semea.



»Eskerrak darozkitzugu
ahalaz errendatzen,
gu gaxoengatik zeren
hanbat baxatu zaren.

»Gure haragiaz zare
gu bezala beztitu,
amudio gehiago
guri nahiz agertu.

»Beregainki Zuri esker
darotzugu itzultzen,
zeure burasotzat zeren
gutzaz hautatu zaren.

»Errezibi zauz, othoi,
gure ahal ttipia:
obra falta bada ere,
ezta izanen nahia».

Astoak eta idiak
burasoen ondoan,
Haurra adoratu zuten
establia-xokoan.

Biak lurrean zitzaizkon
behin belhaurikatu,
gero buruak ziotzoten
lurreraño makhurtu.

Burasoak egon ziren
Haurtxoaren aldean,
munduko zuzia berriz
itzul zedin artean.

Itzuli zenean zuten
errekaitu bellhatu,
Haurtxo iaio berriari
egiteko zerbitzu.

EGUBERRI-GAUEKO ADORAZIONEAREN GAÑEAN NOELA

Kristauak, iaiki gaiten
guztiok ohetarik,
eta Elizara goazen
boz eta allegerarik.

Aingeruen kantuek
gaituzte gonbidatzen,
artzaiñen maniurek
lotarik iratzartzen.

Guztiok iar gaitezen
lurrean belhauriko,
sorthu den Aurtxoari
ohore emateko.

Agur, zeru-lur eta
izarren primutxua,
Zu aithortzen zaitugu
kreaturen Iainkoa.

Zerutik iausti zare
mundua salbatzeko,
hargatik zaitzu beraz
ohore emateko.

Arren, ada, ohorea,
Zuri darotzoguna,
gogo onez errezibi
zazu, othoi, Iauñ ona.

Ordañez egiguzu
Zuk halaber grazia:
zure sortze sainduaz
ungi gaiten balia.



Lurrean bakez geure
 bizia pasatzeko,
 eta fiñean zure
 gloriaz gozatzeko.

AINGERUEN ERESIAREN GAÑEAN NOELA

Sorthu zinen bezain sarri
 Betleengo aldean,
 aingeruak hasi ziren
 eresiaz airean:

«Gloria duela Iainko
 onak zeru gorean,
 eta gizon gogo onek
 duten bake lurrean».

Hunela zintuzten, Iauna,
 aingeruek koplatu:
 orain aldiz gure koplak,
 othoi, entzun etzatzu.

Zu zaitugu gure ahalaz
 Iaun puxanta laudatzen,
 eta zure izen guztiz
 saildua bedinkatzen.

Zu adoratzeko zaitugu,
 Zu, Iauna, ohoratzen,
 zeure ontasunak gatik
 Zuri esker itzultzen.

Zeure Semea bidaldu
 darokuzu lurrera,
 basatuak itzultzeko
 utzi zuten bidera.

Zure Semearen orain
 koplatzeko konjia
 zure ondoan iguzu,
 o Jongoiko handia.



Ungi iaioa zarela,
o Haur guztiz noblea.
Zuk ekhartzen darokuzu
geure libertatea.

Zuk xahutu behar tutzu
munduaren zikhiñak,
Zuk hautsi linboetako
gathe eta burdiñak.

Zarelarik, dakusagun
legez, heia batean,
guztiarekin zaude
Aitaren galtzarrean.

Zeruan agintzen duzu
aingeruen gañean,
bai eta lurrean ere
gizon guztien artean,

Aita eternalaren Zu
bethi zare kidea,
Espiritu Sainduaren
bethi ere para.

Hekin konpañian zaude
fin gabeko glorian,
aingeruek zerbitzatzen
zaituztela lehian.

Arren, bada, Iainko gizon
gure gatik sorthua,
balia diezaguzu
zeure sortze saildua.

Iguzu hemen gareño
behar dugun grazia.
hemengoaz egin ta
sekulako gloria.

ARTZAINEN ADORAZIONEAREN GAÑEAN NOELA

Aineruek zutenean
eresia kantatu,
hedoietarik zitzaizten
artzain onei mintzatu:

Artzainak, utz etzatzue
hespilletan ardiak,
eta Betleena laster
iauts zaitezte guztiak.

«Mundu guztiaren han da
sorthu Salbatzailea:
zuek ere emozue
zeuen ohore partea.

»Beldurrik eztuzuela
arthaldean galtzeko,
hekin gañean Berak du
guardia idukiko».

Hitz hauk gauaz entzuteaz
hagitz ziren izitu,
boz hura nondik heldu zen
gora zuten behatu.

Airean gora zituzten
aingeruak ikhusi,
eta begiak zerosten
arrai batek nahasi.

Elkharri erran zioten:
Hots, ea, ikhustera,
eta geure presentekin
iauntzat ezagutzera.



Guztiak partitu ziren,
aitziñean zuzia,
sorthu den Haurraz zutela
bere solas guztia.

Sorthu zen heia xarrera
zirenean hurbildu,
errespetu handiz ziren
berehala ixildu.

Oiñetakoak zituzten
utzi athe sartzean,
eta berak sarthu ziren
humilki barrenean.

Nola adoratu zuten

Guztiak herrunkan ziren
etxolan arrimatu,
eta belhauriko zuten.
Haurtxoa adoratu.

«Agur, arimen, zioten
erran, Artzain handia:
zorionean zarela
mundura ethorria.

»Basatu guztien zare
ethorri billatzeko,
eta prestuen onetik
hobera gidatzeko.

»Errezibi zazu, othoi,
gure ohore ttipia:
gizonak ezin dikezu
bide zaitzun guztia.

»Geure ahal guztiaz Zu
zaitugu ohoratzen:
Zuri bihotz onez dohain
aphur hauk ofrendatzen.

»Urrunago ezin heda
daite gure ahala:
gehiago preza zazu
borondate leiala.

Gero burasoei egin
zerotzoten agurrak,
eta eskutara eman
bere present aphurrak.

Benedika zaitezteela,
o buraso nobleak,
zeren baitzarete Seme
hain onaren iabeak.

Zuei Iaunak darautzue
eman hunen kargua,
zuen ontasuna zeren
baitzuen frogatua.

Lurrean bizi dadilla
bethi zuen gloria
eta zeruan duzuen
degotzuen saria.

Gero ekharri zerozten
berotzeko egurrak,
eta mendi goretako
hartu bide makhurrak.



ERREGREEN ADORAZIONEAREN GAÑEAN

Trufaniakotz
NOELA

1. Nola Erregeek izar berri bat nabaritu zuten.

Oriente bazterrean
izar bat da agertu,
hirur Errege iakintsun
guztiz ditu atzartu.

Izarrak argitzen zuen
nola suaren kharrak
arraitasunaz garaitzen
gañerako izarrak.

Hirurak egotu zaizko
beha espantaturik,
zeñek bere ballestillak
eskuetan harturik.

Boz batez guztiek dute
azkenean aithortu,
Ingoikoaren Semea
berriro dela sorthu.

2. Nola Haurraren adoratzera partitu ziren.

Elkharri erran diote:
Goazen adoratzera,
eta dohaiñekin geure
iauntzat ezagutzera.

Bere jinete ariñak
dituzte bridarazi,

eta kameluak dohain
ederrez kargarazi.

Dudan zeudezela norat
behar zuten partitu,
izarra bera zitzaien
aitziña abiatu.

O zuzia, erran zioten,
zaren gure gidari,
bozik iarraikiko gaizko
zure arrastoari.

3. Nola Ierusalemara arribatu ziren.

Ierusalengo hirira
xuxen ditu gidatu,
portale gañean dute
begietarik galdu.

Han iuiuatu dute sorthu
dela Salbatzaillea,
Han galdegiteko dute
hartu borondatea.

Herodes gana ioan dire:
«O Herodes Prinzea,
erraguzu non sorthu den
Iuduen Erregea.

»Izar eder batek gaitu
sortzeaz seguratu,
eta erresumetarik
huneraño gidatu.

»Doidoia estali zaiku
bistatik portaletan.
Handik daritzagu sorthu
dela hiri hunetan.



»Arren, bada, non sortu den,
othoi, irakats-guzu,
ezen dohain hautzaz nahi
ginduke estrenatu».

4. Herodesen izialdura.

Herodes urgullua zen
nahasi bihotzean,
berze Errege bat bazela
aditu zuenean.

Ederki disimulatu
du bere dolorea,
eta hargatik arrotzei
egin begitartea.

Sinagogako Dotorak
ixillik deithu ditu,
ea Mesias non sortu
behar duen galdetu.

Doktor guztiek diote
hitz batez ihardatsi,
Betleengo hiritxotik
behar duela ilkhi.

Profetak hala zuela
ia aspaldi kantatu,
iudu guztiak sinheste
hartan bethi egotu.

O Betleen Iudeako
ez hiri ttipiena!
Hire ganik illkhiko duk
Errege Iuduena.

Hitz hauk entzun bezain sari
batzarrean Dotorei,
errepusta ematera
ioan zitzaaien Prinzei:

«Zuek galde duzuen
sortu da Betleenen:
han sortu behar zuela
Profetak erran zuen.

»Zoazte ordu onean,
adora ezazue,
eta bihurtzean haren
berri ekhardazue.

»Nik ere zuek bezala
nahi dut adonatu».
Bizkitartean nahitu
bere harmak prestatu.

5. Nola Erregeek Betleena partitu ziren.

Erregeak dire, bada,
abiatu hiritik,
eta izarra agertu
zaie berriz zerutik.

Bihotzak allegeratu
zaizte, argizagia
noiz ere berriz ikhusi
baitute gidaria.

Bozari eman diote:
O gidari leiala,
zuk, othoi, gida gaitzatzu
hasi ziñen bezala.



Ondotik iarraiki zaizko
bethiere batzean:
hala nola mariñela
orratzari urean.

Betleengo entrezera
xuxen ditu gidatu,
etxola baten gañean
gero zaie gelditu.

Bereala iausti dira
bere zaldietarik,
Iainko Semea sorthu zen
heian sartzeagatik.

Bere kamelu handiak
tuzte deskargarazi,
eta dohaiñak schiei
besotan garrarazi.

6. Nola Jesus Haurra adoratu zuten.

Establian sarthu dire
khorok irauntzirik,
bere Aitonen semeak
darraiztela ondotik.

Haurtxoa ediren dute
Amaren bulharrean,
eta adoratu dute
belhauriko lurrean:

Agur, Errege guztien
Errege nausia,
Iainko egjazkoaren,
agur, Seme bizia.

Zu aingeruek zaituzte
bere Iaun ezagutzen,
Zu zeruko izar klarek
Iainkotzat seinalatzen.

Guk ere aihortzen zaitugu
geure buruzagia.
errezibi zazu, othoi,
gure ohore tipia.

Urre, mirra eta insensu
da gure erresumetan:
ofrendatzen darotzugu
hetarik kopa hautan.

Mirraz nik ezagutzen dut
ezen hillen zarela;
nik berriz erreaz ezen
Zu errege zarela.

Nik fiñean insensuaz
zaitut Iainko aihortzen:
gure ofrendak errezibi
tzatzu gogo onez, arren.

7. Nola burasoak ere salutatatu zituzten.

Presentak eman dituzte
Ama onaren altzoan,
eta salutatatu dute
Semearen ondoan:

O Birjina, zeru-lurrek
ohoratu beharra:
zu baitharik sorthu da
munduaren ibarra.



Agur zuri ere, Iosef,
Iainkoaren maitea:
zuri darotzu kargutan
eman bere Semea.

Zaretela egune ta
sekulan ladatuak,
zeren baitzarete gradu
hain handira deithuak.

8. Nola berze bidez erresumetara bihurtu ziren.

Haurra adoratu eta
jineteen gañera
igan ziren, bihurtzeko
Ierusalen aldera.

Baña aingeruak zituen
ixillik abertitu,
herrira behar zutela
berze bidez bihurtu.

Herodesek iakin eta
Haurtxoaren berria,
idekiarazi nahi
zioela bizia.

Bide beraz abertitu
zuen Iosef prestua,
berze herritara altxa
zezala Haur saildua.

Erregeak ziren bada
berze bidez bihurtu,
baita Iosefek Haurtxoa
Ejiptura altxatu.

INOZENTEN MASAKREAREN GAÑEAN

**Inozenten Bestakotz
NOELA**

Herodesen nabasmenduaren gañean.

Herodesi ziotenean
erregeek galdetu,
ea Iuduen Errege
zein etxetan zen sorthu,

Izieldura zitzaion
bihotzera ethorri,
ustez behar zitzaiola
erresuma idoki.

Pensamendutan zegoen
gauaz eta egunaz,
ea halako gabetu
behar zuen fortunaz.

Gauaz ere egin zuen
amets, ezen khoroa
idokitzen zitzaiola,
bai eskuko zeptra.

Egunaz ere ezin zuen
nihon errepausurik,
behin iaiki, gero etzin,
zabillan zoraturik.

Portaletan eman zuen
soldaduen guardia,
ea noiz itzuliko zenz
erregeen konpañia.



Maiz etxetik hetara du
mandatari bidaltzen,
ea eztiren gargoro
Betleendik agertzen.

Alabañan berze bidez
ia hek ziren bihurtu,
ezen aingeruak hala
zituen abisatu.

Hala Herodes penatzen
zen bere bihotzean,
iaun ikhusi nahi gabez
nior bere gañean.

HERODESEN URGULLERIAREN KONTRA NOELA

Zeren aiz, Herodes, beldur,
erresuma galtzeko?
Iaio denak badik berze
hoberik emateko.

Haren oiñaren azpian
emak heure khoroa,
irabazi eginen duk
are handiagoa.

Hargatik aute errege
arrotzek abertitu;
zeren, bada, ez atzaie
Betleena aitzindu?

Bere superbiak zuen
alabañan erretzen,
handiagoaz berze deusik
ez baitzuen pensatzen.

O handigoa banoa!
Gizonaren bihotza
tormentatzen duk, haizeak
hala nola haritza.

Iainkoa bera nahi duk
kadiratik athera?
Superbioki herori
igateko gañera?

Dragonak elefanta du
egozten asikirik;
berak ordea lehertzen du
gañera eroririk.



Hala urgulluak ditu
lagunak beheratzen,
bera ere azkenean
hautsetara bihurtzen.

Hauk guztiez Herodesek
eztu batre antsia,
eskutara nahi luke
sorthu den Haur ttipia.

Haren odolaz nahi du
hill bere egartsua,
berzela daritza ezin
dukela errepausua.

INOZENTEN MASAKREAREN GAÑEAN NOELA

Erregeak zeudezela
Haurraren adoratzen,
errepustaren begira
Herodes zen unhatzen.

Hainberze non othe daude?
Erran zuen askotan.
Adiu erran zerotaten,
berriz itzultzekotan.

Ez ahal naute burlatu
hirur nola hirurek?
Bere hitzak idukitzen
dituzte erregeek.

Bihurtuko etzirela
zuenean etsitu,
koleraturik zitzaien
soldaduer mintzatu:

«O gazte, perill handitan
bethi ene lagunak:
erakuts zaitezte orain
ere animodunak.

»Errepustarik eztute
erregeek bihurtu.
sorthu denarekin dire
ene kontra aditu.

»Nihor ezagutzen eztut
nik iaun nere gañean,
ezta zuek ere berze
prinzerik ene ustean.



»Egiteko handitan da
orain ene gogoa,
zergatik baitarotate
nahi khendu khoroa.

»Ea zein den ere eztakit
sorthu den Erregea;
hala bethi gelditzen naiz
gogoetaz bethea.

»Zoazte, hill etzatzue
Betleengo semeak,
bi urthetaraño heltzen
diren haurtxo xeheak.

»Hirikoak hill tzatzue
baita ingurukoak,
hekin artean duen fin
errege delakoak.

»O gazteak, egizue,
othoi, dilijenzia;
perill hautarik athera
zazue ene bizia».

Abiatu ziren harma
zorrotzak eskuetan,
argitzen zutela nola
izarrek zeruetan.

Sehasketara ioan ziren
haur gaxoen hiltzera,
eta zokholuetara
gordeen aurkhitzera.

Alfer haurrekin ihesi
doaz ama tristeak,
ardiasten tu soldadu
pictata gabeak.

Bi milla iragan ziren
harma zorrotzetarik,
ama gaxoen auhena
urrikaldu gaberik.

Lur guztia estali zen
haur gaxoen gorputzez,
ibaiak ere gorritu
odol isuri hutsez.

Odola zen amen esnez
oraño nahasia,
ezen doi doia ahotik
utzi zuten dithia.

Amen auhena igan zen
zeruaren gañera,
etzuten nahi zethorten
nihor konsolatzera.

Herodesek hala zuen
hill bere egarria,
munduak madarikatu
krueltasun handia.

Bere nahia etzuen
alabañan konplitu,
ezen Jesus Haurra zuen
Josefek aldaratu.

Hala ungi gordea da
Iaunak begiratu,
Hari kontra egiteko
ezta aski mundua.



INOZENTEN AMEN DOLOREAREN GAÑEAN NOELA

Inozenten ama onak
guztiz ziren harritu,
soldaduak zirenean
Betleena hurbildu.

Izialdura ethorri
zitzaien bihotzera,
nigarra begira eta
ikhara gorputzera.

O Haurtxoak, erran zuten,
zuek bada hain sarri
galdu behar zaituztegu,
bihotzen hiragarri?

Madarika dadillala
Herodes tiranoa,
zeñak hanbat altaratzten
baitu bere gozoa.

Nola batzuk haurrekin ihesi abiatu ziren.

Batzuk abiatu ziren
haurrekin ihesi
laster ordean zituzten
burreuek ardiatsi.

Berehala bere harmak
atheratu zituzten,
eta haurtxoei lehonak
legez iauzi zitzaizten.

Besoak zedutzatela
airean altxatuak,
amek ekhartzen zituzten
aitziñera eskuak.

O burreu kruelak, andre
nigartsuek diuste:
gure haur gaxoek zuei
zer egin darotzue?

Baldin hutsik bada, dituk
guziak gure aldetik,
eta ez ezagutzarik
eztuten haurrenetik.

Guri iguzkigutzue
heriozko kolpeak,
eta utz bizirik gure
iaio berri umeak.

Bañan hargatik etziren
batere gibelatu,
aitzitik eskua zuten
haurretara hedatu.

Batak thira, berzeak thira,
hari ziren gudian:
soldadua garaitzen da
ordean azken buruan.

Bere arma sartzen dio
kruelki gorputzean,
eta haur gaxoa uzten
heatua lurrean.

Zaurietarik zerion
isurika odola,
ithurrici ur garbia
zorrotetarik nola.



Nola berzeek zokholutan ebortzi zituzten.

Berzeek berriz zituzten
zokholutan ebortzi,
denbora luzez ordean
etzituzten iduki.

Ezen salhatu zituzten
oihuz bere buruak,
nola oraiño ez baitziren
ezagutzan sarthuak.

Nigarra aditu eta
soldadua da sartzen,
ama gaxoa alferrik
hari zaio trabatzen.

Zokholuan aurkhitzen du
eta lekhu berean
ezpata landatzen dio
bihotzaren gañean.

Inozenten amen aubenak.

Ama gaxoek zioten
eman dehadarrari,
eta atzaparka athera
illeak buruari.

O haurtxo maitea, (andre
dolutuak zioten)
egun hunen ikusteko
zuetzaz erdi baikinen.

Iaio bezain sarri burreu
pictate gabeak
lurrera eman zaituzte
nola brumak loreak.

Ala gu baikare ama
zoria gaitzekoak,
pezetan ikhusi behar
baikintue harutxoak.

O Herodes, Afrikako
leoñaren pare,
madarika dadillala
munduan hire ospea.

Berriz ere madarika
dadilla hire hotsa,
zeren hanbat doloratu
baituk gure bihotza.



JESUS KRISTOREN ZIRKUNZISIONEAREN

Urthe Berrikotz
NOELA

Ierusalengo apheza,
ilkhi zaito bidera,
ezen gure Errege heldu
da zirkunzidatzera.

Errege delarik nihor
ezta humillagorik,
ezen bildots emea bezain
heldu zaiku malkhorik.

Zeren humilki heldu den
ezazula mespreza,
baña aitzitik gehiago
albaitezazu preza.

Zordun ezten arren, nahi
du legea konplitu,
tenitu den guztiari
emateko exenplu.

Epheak iragatera
nahi eztitu utzi,
ezen iaio dela eztu
egunik baizen zortzi.

Jesus Kristo, egun hasi
zare odol isurtzen,
gurutzean nahi duzu
akhabatu xukatzen.

Gaur halaber nahi duzu
hartu zeure izena,
Jesus Kristo munduaren
Salbatzailearena.

Hala erakutsiko duzu
noizbait habe gorean
gure amoreak gatik
bizitzea galtzean.

Linbo beltzetik ditutzu
arimak libratuko,
guztiei zeruetako
atheak zabalduko.

Aphezak, presta zazue
ederki aldarea,
bai kanibet eta bai plat
hartarakotz gordea.

Trata zazue Iaunaren
Semetsoa emeki,
gero ere sentituren du
dolorerik aski.

Ungi guarda etzatzue
hain reliki sainduak,
hei debozionerekin
egin zeuen botuak.

Aphezek Iainko-Semea
dute zirkunzidatu,
eta Jesusen izenaz
gero dute deithatu.



Haurra itzuli daroe
ekharri daroenei,
eramateko buraso
penetan zeudezeneri.

Bere mari zioten
Jesus haurra bihurtu,
milla bozkarioekin
emak errezi bitu.

Iauna, bedinka dadilla
zure izen noblea,
zeren eskutara baitut
neure iaio maitea.

Hunen absenziak guztiz
ninduen hagarandu:
ikhustek berriz darot
bihotza allegeratu.

Berriz ere ditutzula,
Iauna, esker dobleak,
zeren boztu baitituzu
ene begi tristeak.

ANDRE DENA MARIAREN ELIZAN SARTZEAREN GAÑEAN

NOELA Kandelerokotz

Simeon ona, non zaude?
Ilkhi zaita athera,
Birjina saindua heldu
da Elizan sartzera.

Iaunak hitz eman zerotzun
segurantzaz bethea,
ikhusiko zinduela
haren Seme maitea.

Huna amak non dakhartzun
uso parearekin,
legearen kunplitzeko
borondatearekin.

Simeon ona ilhi da
tenpluaren athera:
Birjina Ama gonbidatu
du barrena sartzera.

Haurra besoetan artu
du bozkarioekin,
Ama ondotik zerraion
Josef esposarekin.

Aldarearen gañean
emeki du pausatu,
eta Iainkoari bere
Semea ofrendatu.



Errendatzen ziotzola
bere partez eskerrak,
debotki erran zituen
ondoko hitz ederrak:

«Jauna, orain uzten nauzu
neure azken mendean,
promes ziñarotan legez,
bake handi batean.

»Zergatik ene begiek
zure Salbatzaillea
ikhusi baitute aspaldi
Zuk agindu Prinzea.

»Ezagutzarik eztuen
jendearen argia,
eta zure Israelgo
popluaren gloria».

Gero Amari zioen
bere haurra bihurtu,
milla laudorioz Ama
saindua ohoratu:

«Benedika zaitzela,
o Birjina noblea,
zure ganik zeren sortu
den Jongoiko Semea.

»Benedika dadillala
zure sabel garbia,
gizonaren obra gabe
zeren baita erdia».

Iosef zaharra ere zuen
arraiki salutatu,
gero korteski zeroen
bici konjia hartu.

Boz eta pagurik zuen
akhabatu bizia,
zeren ikhusi baitzuen
prometatu Mesia.



JESUS HAURRA TENPLUAN AURKHITZEAREN GAÑEAN NOELA

Birjina eta Josef dire
itzultzen bere etxera,
erromeria egirik
Nazaret barrenera.

Birjina beregain heldu
da andre lagunekin,
Josef halaber beregain
gizon ezagunekin.

Biak nola, biak heldu
dire allegerarik,
ustez ezen etzaiela
deus gerthatu kalterik.

Alabañan aurkhi dire
biak doloraturik,
Semea galdu dutela
dutenean iakinik.

Arratsean direnean
urrun bidean bathu,
Jesus haur mansoa dute
biak eskas aurkhitu.

Batak berzearekien
heldu zela ustean,
biek Haurra utzi zuten
Ierusalen noblean.

O ene dohakabea!
Birjinak egin zuen,
hunelako bihotz-miña
hartu behar bai nuen.

Egun bateko bidetik
berriz ziren itzuli,
eta bazter guztietan
haren billha ibilli.

Ama tristeak zeroen
ezagunei galdetzen,
ea haren aurra nihon
ere ikhusi zuten.

Ikhusi duzue ene
arimak onhetsia?
Hura galdurik nabilla
triste eta larria.

Ezagunek alabañan
zeroen ihardatsi,
Jesus Haurra etzutela
nihon ere ikhusi.

O ene titxakabea!
Birjinak egin zuen,
neure begien argia
galdu behar bai nuen.

Zer falta egin darotzut,
O neure Haur maitea?
Bakharrik utzi bainazu
tristeziak bethea.

Gehiago ezin bizi
naiteke Zu galdurik;
ager zakizkit zerori,
othoi, Haurra, nonbaitik.

Hirur egunez ibilli
ziren hala penetan,
Ierusalengo karrika
eta plaza guztietan.



Azkenean ersiturik
tenpluan ziren sarthu,
eta han zuten disputan
dotorekin aurkhitu.

Haurrak bere Ama athetan
ikhusi bezain sarri,
dotoretarik zitzaion
aitziñera ethorri.

Sentimendu handirekin
Ama zaio mintzatu:
«Haurra, nola hunelako
penan eman gaituzu?»

»Josef zure aita eta ni
hirur egun hunetan
zure billha ibilli gare
karrika eta plazetan.

»Egun bateko bidetik
huna gare bihurtu;
aitarekin edo enekin
nola etzinen partitu?»

Pazientki aditu du
Amaren errenkura,
eta errepusta eman
hitzaren eredura.

«Nola, Ama, eztakizu
neure Aitarenetan
aurkhitu behar dudala
nik egitekoetan?»

»Nola, bada, ene kontra
zare errekuratzen,
dakizunaz geroz nola
aurkhitu behar naizen».

Birjinak hitz hauk zituen
bere baithan pisatu,
eta pagurik etxera
haurrarekin bihurtu.



LIBURUTXO HUNEN BIGARREN PARTEA:

*Jesus Kristoren bizitzaren misterio printzzipalen gañean
kanta espiritualak.*

JESUS KRISTOREN IERUSALEMERA SARTZEAREN GAÑEAN

**Arramukotz
KANTA**

1. Nola Ierusalem era asto gañean sartbu zen.

Jerusalem Iudeako
hirien erregiña,
heure gobernadoreari
ilkhi akio aitziña.

Farisauak, ea, ilkhi
zakizkote bidera,
bai zuek Aitonon seme
nobleak aitzinera.

Desertu tristetik heldu
da Satan garaiturik,
eta berrogei egunez
debotki baraturik.

Ezta heldu gerlarien
gisa zaldi gañean,
bañan baketiar baten
gisa asto gañean.

Gibeletik eztarraio
soldadu harmaturik,
baizen hamabi mariñel
arrantzan usaturik.

2. Hirian sartzerakoan erran zituen hitzak.

Ierusalemen bistara
ethorri bezaom sarri,
Jesus Salbatzaileak eman
zioen negarrari:



«O Ierusalengo hiri
guztiz esker gabea,
eta Profeta sailduen
kruelki hiltzaillea.

»Ala hik egun baituke
auhena altxaturen,
baldin ezagutzen bahu
zer ethorriko zañen.

»Etsai handiek lezonez
aute inguratuko:
eta hire dorre ederrak
lurrera etxatuko.

»Harria eztiñe utziko
harriaren gañean,
ez eta hire semerik
bizitze barrenean.

»Dohatsua izanen dun
orduaz emaztea,
zeiñek izan ez baituke
egundaiño semea.

»Eta Plaga hauk guztiak
behar zaizkin gerthatu,
zergatik eztun ene
bisita ezagutu».

3. Nola jende xehea eta Haurrak baiizen etzitzazizkion ilkhi.

Hitz hauk erran bezala zen
aitziña abiatu,
jende handirik ordean
etzitzaion agertu.

Haurrak ethorri zitzaizkon
eta jende xeheak,
eskuetan zituztela
arramu eder ferdeak.

Arrolletara arropak
ziotzoten etxatu,
eta hunela zioten
karriketaz kantatu:

Ungi ethorri zarela,
o Profetan handia;
ungi ethorri, zerutik
Iainkoak egorria.

Ierusalengo hiria
hasi zen altaratzen,
ea zer espantu edo
mirakullu handi zen.

Guztiz altaratu zien
hiriko nausiak:
zeren ematen zitzaizkon
hain ohore handiak.

4. Nola merkatariak tenplutik khasatu zituen.

Salomonen tenplura hartu
zuen xuxen bidea,
gibelezik zerraiola
jendearen ostea.

Merkatariak zituen
gauza saltzen aurkhitu,
azote batez zituen
guztiak handik khasatu.



Hunela hasi zitzaion
hizten koleraturik,
Iainkoaren alderako
zeloak alhaturik:

Zoazte, ilkhi zaitetze,
o ahalke gabeak,
ilkhi zaitetze tenpluen
o profanatzailleak.

Iainkoaren othoizteko
ordenatu etxea,
ohoñ gaxtoen duzue
zuek egin lezea.

Zoazte, ilkhi zaitetze,
eta berze lekharik
billha ezazue zeuen
tratuen egiteko.

Gero aldare aitzinean
belhauriko iarri zen:
eta deboziona handiz
Aita othoiztu zuen.

Akhabatu zuenean
bere othoitz saildua,
han zen jendeari egin
zioen predikua.

Jendeak zituen haren
hitz ederrak miretsi,
zergatik mintzatu baitzen
guztiz miragarriki.

Gero ekharri ziotzoten
aitziñera eriak,
eta bidaldu zituen
sendaturik guztiak.

Mirakullu hartaz ziren
guztiak espantatu,
eta haurrek leheneko
oihutxoak doblatu.

5. Nola farisauak bekhaiztu zitzaizkon.

Obra handi hautaz ziren
farisauak bekhaizten,
zren berek ezpaitzuten
halakorik egiten.

Haurtxoak zituzten ixil
zitezela manatu,
eta begira zegokan
jendea mehatxatu.

Berari zioten begi
zeharrez begiratzten,
aski ziotela bere
aihera erakusten.

Salbatzailleak hekien
ikhusirik damua,
aditzera eman zeroen
bere sentimendua.

O farisau hipokritak,
zuen egun haurtxoak
manatu tutzue ixil
daitela tipittoak.

Nik diutsuet, bada, ezen
hauk badire ixiltzen,
harriak direla ene
fabore mintzaturen.



Mehatxu hau zutenean
farisauak aditu,
tenplutik ziren bihotz-min
handirekin partitu.

Salbatzaillea han bera
gelditu zen baxharrik,
bihotza tristerik eta
gogoetaz betherik.

Arrats artean egotu
zen tenplu barrenean,
gero lekhorera ilkhi
zen illun nabarrean.

Hiritik ere ilkhi zen,
ezen bere etxera
nihork ere gonbidatu
etzuen etzitera.

Hala Iaunari zitzaizkon
farisauak bekhaiztu,
hala zioten hiriko
jendea mutiñatu.

Bañan hauk guztiez etzen
deus ere zer miretsi,
hek berek behar dutenaz
geroz gurutzarazi.

PASIONE SAINDUAREN GAÑEAN

KANTA

Aste Sainduan

1. Farisauen inbidia Jesus Kristoren aldera.

Pasione sakratua
nahi nuke kantatu;
ahairea Zuk zerorrek,
Jesus, irakats dazu.

Farisauak zerotzuten
ekharri inbidia,
zeren ematen zitzaitezun
ohore merezia.

Elkarrekin egin zuten
herrosoek akordu,
zur gurutzatura behar
zintzutela altxatu.

2. Kaifasen konseilla.

Kaifas handia hasi
zen hunela mintzatzen,
heriotze kruelera
zintuela iuiuatzen:

Gu zer hari gare jende
sentimendu gabeak?
zeiñek uzten baititugu
galtzera ohoreak?

Jesus Nazarenoak du
obra hañitz egiten,
jende guztia duela
beretzat irabazten.



Gure ohoreak doaz
egun oro galduaz,
eta harena kontrara
bethi abantatuaz.

Jende guztiak aurkhi du
profetatzat harturen;
gure erregetzat zaiku
guztioi altxaturen.

Orduan ethorriko da
Erromaren ostea,
suntsitzera Iudeako
nazione noblea.

Ea, beraz, pensa zagun
ea zer hari garen,
erremedio ematera
guztiak esaia gaiten.

Nik daritzat hobe dela
hura bera gal dadin,
ezen harengatik jende
guztia honda dadin.

3. Nola preso har arazi zuten.

Kaifasen konseillua
ona iuiatu zuten,
preso har arazitzekeo
moian billhatu ziren.

Diruz korrumpitu zuten
haren espenseria,
zeñak musu batez saldu
baitzuen Nausia.

Baratzetik daramate
soldado hiratuek,
ardiantxa mansoa nola
otso errabiatuek.

Ohoien baten gisa altxatu
zuten sokaz lothurik,
eta Zedrongo Ibidean
basan herrestaturik.

Lehenik eraman zuten
Anasen aitzinera,
Kaifasen ginharraba
zaharraren etxera.

Anasi zeren egia
ihardatsi zioen,
sehi lausengari batek
ahutzekoz io zuen.

Han zuen Iaundoni Petre
balentak arnegatu,
oillar erneak zueneko
hiruretan kantatu.

Handik gero eraman zuten
Kaifasen etxera,
asko burla eta trufa
gauaz rezebitzera.

Biharamunean zuten
kortean presentatu,
iujearen aitzinean
falsoki akusatu.



4. *Nola Pilatusek libratu nahi zuen.*

Pilatusek inozenta
libratu nahi zuen,
zeren hekin inbidia
ezagutu baitzuen.

Iuduek etzuten nahi
halakorik aditu,
Barrabas ohoñ gaxtoa
nahiago libratu.

Urrikaldurik utziko
zutelako ustean,
azotera kondenatu
zuen arroñ batean.

Burreu kruelek erauntsi
bazioten indarrez,
suharotzek burdinari
nola landu beharrez.

Gorputz guztia zioten
azoteez larrutu,
eta bisaia ederra
odoluriz itsustu.

Bururik oñetaraño
bethe zuten uspelez,
ezagun etzen bezala
zauri eta odolez.

Burura eman zioten
elhorrizko khoroa,
eta burlaz eskuetara
elhorrizko zeproa.

Pilatusek gisa hartan
zeroen presentatu,
hala ere nahiago
gaixtagiña libratu.

5. *Nola Pilatusek azkenean kondenatu zuen.*

Iujeori zegoela
ez iakinez zer egin,
mehatsu handiarekin
hitza zioten egin:

Pilatus, etsi ezazu
Jesus kondenatzera,
edo ezperen zaudezen
kargutik ilkhitzera.

Pilatusek ez galtzeko
bere kargu handia,
gurutze gorara zuen
kondenatu Mesia.

Arrasta eman bezala
soñera gurutzea
eman zioten, orduko
nola baitzen legea.

Behin eror, gero altxa,
urratsik aitzinera
ezin eginez, gelditzen
zitzaien gibelera.

Jentil batek hartu zuen
haren orde habea,
gero ere hek emanen
hartan bere fedea.



Gaixtagiñen punitzeko
kostumatu mendian,
gurutzean eman zuten
bi ohoñen erdian.

6. Nola gurutzean bill zen.

Zauri handietarik zen
hurran odolez hustu
bihotza zitzaionean
Iaun onari flakatu.

Egarri zela zeroen
erran iudi gaixtoei:
miagra presentatu
haren ezpain sailduei.

Doloreez kontent gabe
eskarniatzen zuten,
gurutzetik iauts zedilla
baldin Jongoiko bazen.

Sentiturik hersten zela
haren azken orena,
Joanisi zioen bere
komendatu Ama ona.

Hirur orenez tormenta
handitan egotu zen,
hekin buruan arimak
gero egin zioen.

Hunela zuten Iaun ona
iuduek hillarazi,
hill zenean ere lanzaz
saihetsa pasarazi.

7. Nola kreatura guztiak tristatu ziren.

Kreaturek hartu zuten
haren kausaz dolua:
goibel beltzez estali zen
zeru planetatsua.

Iguzkia illhundu zen,
illhargia itsutu:
zeruko izar argiena
tinta lege z billhatu.

Harriak erdiratu ziren
kantoñ guztietarik,
sainduen gorputzak ilkhi
bere hobietarik.

Tenpluko tapizeriak
egin ziren bi zathi,
eta kobrezko atheak
gondetarik irauzi.

Airean aditu ziren
auhen eta plaiñuak,
itsas zabalean ere
marraska eta oihuak.

Iudas gaixtoa ere zen
damuz desesperatu,
zuhaitz batetarik zuen
bere burua urkhatu.

Kreatura guztiek zuten
damu hartu fiñean,
zergatik Salbatzailea
itzatu zen habean.



8. Nola ebortzi zuten.

Josef Arimatiarrak
eskaturik konjia,
habetik irautsi zuten
Iaun onaren lohia.

Aromatez gantzuturik
thonba eder batean,
ehortzi zuten beretzat
eragin zuenean.

Iuduek ezarri zuten
sepulturan guardia,
diszipuluek gauaz altxa
etzezaten lohia.

Hilletarik piztu zela
jendetan etzerraten,
laido gehigorekin
hala geldi etziten.

Guztiarekin alferrik
hanbat penatzen dire:
hirugarren egunean
ezen biztuko zaie.

Zure pasionearen
haxe da historia;
egidazu, Iauna, hartzaz
baliatzeko grazia.

Gurutzearen orenak.

Gurutzearen kantatu
gogo ditut orenak:
Jesus Kristo, entzun tzatzu
ene triste auhenak.

Eta dietzakidatzu
barkha neure hobenak,
digne kiago detzadan
bana haren omenak.

Matutina gau erditsu
inguruan hartua,
Aitaren zuhurtzia eta
egia ezagutua;

Dizipulu propioek
etsaiei largatua,
eta diruz erosirik
iuduek penatua.

Priman argitu zenean,
iujearen etxera
ioan zintuzten lekhukoez
gaizki akusatzer.

Bi eskuak gibelean
lothurik zeiharrera
eta bisaia ederra
thuka despistatzer.

Terzia da bederatzi
oren, dehadarrari
eman zioten. Zu itza
ziñakizkon zurari.

Tresna ederrak ziotzoten
iauntzi zure soñari,
bai arantzezko khoroa
buru sakratuari.

Seztan amabi orenetan
zintuzten gurutzatu,
eta saihetseko ohoiñ
bien pare iuiatu.



Egarria zerotzuten
khelder minez hezatu;
bekhatuen khentaillea,
hala zinen tratatu.

Nonan hirur orenetan
zeure Aitari arima
gomentaturik hil ziñen:
hau zen bada lastima.

Lanzak erdiratu zuen
saihets iustuarena,
lurra ikharatu eta
gau billhatu eguna.

Bezperetan zinituzten
irautsi gurutzetik,
Iosek Arimatiarrak
konjia eskaturik.

Hala ioan ziñen, bizitze
emaillea, mundutik,
eta ahoz gora egotu
gero sorho gaiñetik.

Konpletetan illhuntzean
gantzaturik hobira,
Iosek eta Nikodemok
eman zuten berrira.

Orduan zen egietan
frogatu eskritura;
historia aiphatzean
nork eztuke laztura?

Zure pasionearen
kantatu tut orenak:
Jesus Kristo, entzun tzatzu
ene hasbeherenak.

Eta dietzakidatzu
barkha neure hobenak,
goza detzadan ontasun
zure hiltzearenak.



GURUTZEAREN OHORETAN

KANTA

Gurutzearen Bestetakotz

Kantaz noa erratera
 Iauna hill tzen habea,
 itzez, lantzaz, zuziz, harmaz
 eta arantzez bethea.

O Jesus, bidegabeki
 iuduek hartan emana:
 egidazu haren ungi
 aiphatzeko dohaiña, dohana.

O Gurutze sakratua,
 bi belhaunez zuretan
 debozinez iartzen naiz
 belhauriko oiñetan.

Errezibitzatu, othoi,
 ene laudorioak,
 ez izan arren ohore
 zureen doiekoak.

Desertuan Zu zintuen
 Moisek figuratu,
 Kalbarioko mendian
 Zu iuduek landatu.

Zure bistan sendatzen tu
 doloratu eriak,
 ifernuko sugearen
 eztenak asikiak.

Adamek huts egin zuen
 zuhaitz baten oiñean,
 erremediatu zen huts
 hura zure gañean.

Zuk ekharri darokuzu
 biziaren fruitua,
 arima goseei eman
 Zuk saziamendua.

Herioaren izatu
 Zu zare herioa,
 gure zauri eta plagen
 Zu erremedioa.

Satani bere bihotza
 Zuk diozu harritzen
 zure señaile berak du
 urruitira haizatzen.

Perilletan Zu zaitugu
 erredolatzat hartzen,
 zure gerizean gaizko
 Satani defendatzen.

Aingeru hiltzailleak hei
 daroe barkhatuko
 zeñen bekhokitan baitu
 merka hau aurkhituko.

Merka hau bera agertuko
 da zeru urdiñean,
 Salbatzaillea iuiatzera
 aserrerek iaustean.

O oliba bakezkoa!
 Gizonak Zuk ditutzu
 aingeru eta arkanjelu
 sainduekin baketu.

Zure itzalera heldu
 dire desolatua,
 han aurkhitzen tuzte bere
 nekeen deskansuak.



Basatuak Zuk ditutzu
bide onera itzultzen,
zeruetara kristauak
Zuk eskutik gidatzen.

Zuk eriei daroezu
bihurtzen osasuna,
gabei Zuk eskas duten
ematen ontasuna.

Zuk ideki darokuzu
zeruko portalea,
Zuk hautsi Linboetako
presondegi tristea.

O Zuhaitz bedinkatua!
Zenbat baitut erraten,
errateko gehiago
gogora zait ethortzen.

Jesus onak Zu zintuen
jasan bere soiñean;
zuregañean etzin zen
guretzat sofritzean.

Haren odolaz izatu
zare ihinzatua
haren mianbro sainduz
Zu benedikatua.

Zeru-lurreko puxantzak
Zuri zaizkitzu khurtzen:
errege eta prinzeek
zuri agur egiten.

Zu kapitainek zaituzte
ekhartzen libraitetan,
monarka eta dukeek
Zu bere khorroetan.

Zure baithan dire kristau
guztiak gloriatzen,
zure baithan dute bere
esperantza ematen.

O Linbaneko alzifre,
ihartzen etzarena,
eta arramu ozpñiaren
ahalke etzarena.

Ifernuko haizeak Zuk
etzaitu iharrosten;
haren tormentek lurrera
nihoiz ere ez etxatzen.

O arbola sakratua:
oihanetan zurerik
egundano ezta izatu
ez izanen parerik.

Zuk haiza diezadazu
infernuko belea,
ene ariman eztezan
egin bere ohatzea.

Zu begietan harturik,
parabisu saindua
irabaz dezadan Kristau
penatuen portua.

Han gero ikhus dezadan
Jesus hartan etziña,
eta errenda diozodan
esker ahal egiña.



JESUS KRISTOREN HILLETARIK BIZTEAREN GAÑEAN KANTA

Alba gorria agertzen
hasi zen orenean,
habarrots handia egin zen
thonbaren saihetzean.

Lurra ikharatu zen eta
airea iharrosi,
soldaduak iziturik
abiatu ihesi.

Orduan Salbatzaillea
piztu zen hilletarik,
zeruetako bidea
arimeri libratu.

Nola iguzkiak baitu
iragaiten beriña,
nion ere egin gabe
tarte edo hirriskiña,

Iaun mansoak hala zuen
iragan hillharria,
nion ere autsi gabe
gaiñeko estalkia.

1. Nola aingernak piztu zela Mariak seguratu zituen.

Andre onak zioazen
tristerik baratzera,
ungendu onez launaren
gorputza gantzutzer.

Aingerua bathu zaie
thonbaren eskuñean,
morroin gazte kortes baten
iduri ederrean.

Ospiñak legez zioen
argitzen bekhokaik,
eta tresnek ere onhesten
nola elhur xuriak.

Sepulturarat andreak
direnean hurbildu,
hitz kortes hautzaz bazaie
aingerua mintzatu.

«Andreak, norat zoazte?
Zuek galde duzuen
piztu da, ikhus azue
sepultura barrena.

»Tonba-harri bera nahi
darotzuet irauli;
zatozte, ikhus azue,
etzaitzeltela izi.

»Huna non den mihisea,
huna oraino lumatxa,
ikhus ezazue nola
sepultura den hutsa.

»Eztuzue ungenturik
zerentzat gantzutzeko,
ezen biztu da, ez nihoiz
gehiago hiltzeko».

Andreak behatu zuten
thonbaren barrenera,
eta egjak aurkhitu
erranen arauera.



2. *Nola aingeruak manatu zituen Apostoluei berria ekhar zizezen.*

Aingeruak gero erran
zeroen andre onei:
Zoazte, errotezue
haren apostoluei.

Guztiz ere errozue
berri on hau Betriri,
tristezia gehiago
ez temon gogoari.

Hekin Nausia biztu
dela illen artetik,
gloria eta triunfa
guztiz handiz betherik.

Galilea bere herri
maitera doazela:
hilletarik Biztua, han
ikhusiko dutela.

3. *Nola Apostoluei berria kondatu zeroen.*

Andre onak berri hautzaz
guztiz ziren pagutu,
eta Iaunari eskerrak
ziotzoten bihurtu.

Ierusalengo hirira
berriz bihurtu ziren,
eta Apostoluei berri
hau kondatu zeroen.

Lasterka ziren Piarres
eta Joanis partitu;
Joañis gaztea, ordean,
Piarresi aitzindu.

Hel ere thonba barrena
ungi miratu zuten,
baiñan Iaunaren gorputza
han ediren etzuten.

Nola Jesus Kristo bera agertzen hasi zitzaien.

Iauna agertu zitzaion
sarri bere Amari,
gero Madalena andre
bere penitentari.

Gero Iaundoni Petriri,
gero diszipunuei,
Emauserako bidean
aurkhitu zituenei.

Agertu zitzaien ere
guztiei azkenean,
iuduen beldurrez
zeudezela batean.

Nola San Tomasek piztu zela sinhetsi nahi etzuen.

Tomas siñesgorra etzen
orduan han aurkhitu,
Salbatzaillea piztu dela
eztu nahi aditu.

Eztut nahi, dio, Iauna
piztu dela sinhetsi,
baldin ezpadetzat haren
zauriak begietsi.

Hari ere Iauna agertu
zitzaion handik sarri,



eta lanzaren zauria
eskuz uki arazi.

Sinhetsi zuen zauria
ukitu zuenean,
Iaunak erantzuki egin
guztien aitzinean.

Tomas, sinhetsi duk orain,
zeren hire eriak
ukitu dituen ene
gorputzeko zauriak.

Nik diotsat, bada, hura
daitekela dohatsu,
ez ikhusi arren, zeñak
sinheste emanen baitu.

San Tomasek ezagutu
zuen bere hobena,
eta Iaunari eskatu
barkhamendu harena.

IUDUEN SINHETSGORTASUNA

Iudu gaiztoak dirade
aren sinhetsgorrago,
San Tomas, Iaun mansoaren
diszipulua baño.

Iauna biztu dela batre
eztute nahi sinhetsi,
haren biztu fama ere
nahi dute ehortzi.

Thonbaren inguruan zen
soldaduen guardia,
korrnpitu nahi dute
eskañirik saria.

O Nobleak, errazue,
gauaz lo zauntzate,
diszipuluek thonbatik
aldaratu dutela.

Errazue hala dela
ez gu desohoratzeko.
Huna urre, huna zillhar,
harma eder erosteko.

Iudu herrosoak ziren
hunela enplegatu,
Salbatzaillearen biztu
fama nahiz itzaldu.



IUDUEN KONTRA

KOPLAK

O herrosak, etzen aski
gurutzean hiltzean,
ondotik ideki gabe
oraño ohorea?

Etzaitzue oraño aski
gogoa saziatu?
Gibeletik ere nahi
batzaizkote aspertu?

Zeri hainberze zaizkote
sinhetsgorrak penatzen?
Suak den lekhitik bethi
norabait dik ilkhitzen.

Biziaren emailleak
eztu bada puxantza,
thonbatik irakitzeko
hillik datzan gorputza?

Piztu duk, bada, ez nihoiz
gehiago hiltzeko.
Piztu gloriaz betherik
zerura igateko.

Aingeru sailduiek die
ia banatu berria
Maria sailduiek haren
ikhusi hillharria.

Sinhets ezazue zuek
orobat piztu dela,
eta aithor ezazue
huts egin duzuela.

Haren pizteaz zarete
hala progotxatuko,
eta azken egunean
glorioso piztuko.

Arren, bada, Jesus Kristo,
glorioski piztua,
egikeguzu glorios
Zuk pizteko donua.



JESUS KRISTOREN PIZTEAREN GAÑEAN

Bazkokotz BERZE KANTA

Ea, girstinoak, Bazko
egunean pitz gaiten:
egun hunek berak gaitu
hartara gonbidatzen.

Argizagiak orobat
gonbidatzen gaituzte,
zergatik bere dolua
egun utzi baitute.

Iguzkia nahi bezain
goizik ezta agertu,
alba gorria ere ez nahi
bezain sarri urratu.

Lehor tristea ere da
pagutu miragarri,
zergatik baitzaio bere
artizarra goiz ilkhi.

O zuz handia, zure
adatsaren izpiak
thonbatik ilkhitzen dire
nola urre-izpiak.

Xukatzen darozkigute
bere arraiez begiak,
iguzkiak hala nola
errepira buziak.

Zure hiltzeak tristetu
zuen mundu guztia,

argizagi berek zuten
hartu dolu handia.

Egun berriz dakuskigu
direla allegeratzen,
ezen dolu beltza dute
argitara mudatzen.

O iguzki klara, nihoiz
etzare goibelduren,
aitzitik bethi arraiki
zaizkigu agerturen.

Zuretzat ezta izanen
negurik nihoiz ere,
aitzitik denbora eder
eta uda bethiere.

O Fenix saildua, egun
biztu zare gazterik,
zeruetan bizitzeko
bethi gloriosorik.

Han bethi izanen duzu
gaztetasun gordiña,
han bethi allegeraki
eramanen adiña.

Guri ere egikeguzu,
arren, othoi, grazia
han berean pasatzeko
bozki berze bizia.



NOLA BAZKO EGUNEAN PROFEZIAK KONPLITU ZIREN

**Bazkokotz
HIRURGARREN KANTA**

O Iaun noblea, egun da
gerthatu egietan
iudu gaixtoei errana
zeure predikuetan.

Zuk zinduela tenplua
lurrera etxaturen,
hirur egunen buruan
lurretik altxaturen.

Ihardatsi zuten: nola
egin ahal daiteke?
egiten egotu denaz
geroz berrogoi urthe?

Iuduek aditzen zuten
Salomonen tenpluaz,
eta Zuk, Salbatzaillea,
zeure gorputz sailduaz.

Hola zure errana da
egietan gerthatu,
hirurgarren egunean
zeren baitzare piztu.

Ifernuaren Zu zare
izatu asikia,
heriotze kruelaren
Zu herio haundia.

Orain zaio bere bihotz
urgullua ematu,
zergatik baititu zure
indarrak ezagutu.

JESUS KRISTOREN ZERUETARA IGATEAREN GAÑEAN

Iaundoni Salbatorekotz

Zerua, ideki zazu
urrezko portalea,
eta ohorez errezi
Iainkoaren Semea.

Aingeru, Arkanjeluak
iar zaitetzte herrunkan,
baita zuek, Serafiñak,
ederki ordenantzan.

Bat bederak emozue
zor zaion ohorea,
ezen igatera doa
biktoriaz bethea.

Mundu behere hunetan
eztu zeren berandu,
ezen Aitaren manuak
obretan eman ditu.

2. Partidan erran zituen hitzak.

Olibetko mendiaren
garaitera da igan,
Ama eta Apostoluei
azken hitzak han erran.

«Maiteak, ezin nagoke
zuekin gehiago,
ezen egoteko ez
ephea luzeago.



»Zerura igan behar dut
Aitaren eskuñera,
karitate handi iduki
zazue elkarren aldera.

»Zoazte eta predika
zazue Baptismua,
eta zerutik ekharri
dudan lege saindua.

»Aithortzen dut zoaztela
munduaren artera,
ardiantxa mansoak nola
otso goseen menera.

»Gaiztoek usteko dute
sendagailla handia
egin diketela, zuei
egiteaz gaizkia.

»Pena suerte guztiez
zaituzte nekhaturen;
zeruetan dire zuen
nekeak pagaturen.

»Badakit ene solas hauk
zaituztela larritzen;
pazienzia darotzuet
hargatik gomendatzen.

»Adiu, beraz, ene maiteak,
animoso zareten;
zeruetan zuentzat dut
nik ere othoitz eginen».

3. *Nola Apostoluak tristetu ziren.*

Guztiak ziren hitz haukin
entzuteaz tristetu
begietarik zitzaien
nigarra abiatu.

O gure dohakabeak,
damuz erraz zioten,
nola bizitzea dugu
Zu gabe eramanen?

Emaxurtx izanen gare
munduko bizitzean,
etzaitugunaz geroztik
izanen saihetsean.

4. *Nola konsolatu ziren.*

Ezta hala izanen (erran
zeroen Iaun iustuak);
konsolatuko zaituzte
Espiritu Sainduak.

Zerutik ethorriko da
zuen konsolatzera,
eta behar den guztiak
zuei irakastera.

Asko gauza nukelarik
zuei deklaratzeko,
hargatik eztarotzuet
batere aiphatuko.



Konplitzaketzue, bada,
haren erran guztiak,
eta munduari konda
ene obra handiak.

5. Nola partitu zitzaien.

Adiu, beraz, ene Ama
guztiz onhetsia,
aidu, ene Apostolu
maiteen konfraria.

Karitate handirekin
zituen besarkatu,
gero airean gora zen
igaiten abiatu.

Beha egotu zitzaizkon
Apostolu guztiak,
baiñan estali zeroen
sarri hedoi lohiak.

Zeruetan sarthu eta
aingeruen ostea
aitziña ethorri zitzaion,
bozkarioz bethea.

Guztiek egin zioten
agurra beherera,
eta Aitak khoroa bat
eman buru gañera.

Ohorezki iar arazi
zuen bere eskuñean;
orain gure ararteko
dago haren aldean.

6. Nola aingeru bat konsolatzera ethorri zitzaien.

Aingerua sarri iausti
zen zeru goretarik,
Apostolu tristatuen
konsolatzegatik.

Hunela hasi zitzaien
nigartsuei mintzatzen,
bere dolua ahalaz
zeroela arintzen:

«O Apostoluak, zeri
zagotzote begira?
Orain igaten ikhusi
duzuen ga goitira

»berriz ere iaustiko da
munduaren fiñean,
sententzia emateko
hil guztien gañean.

»Konsola zaitezte, beraz,
zeuen gogo tristetan,
eta bethiere bizi
esperantza onetan.

»Xuka etzatzue nigar
horiok begietarik,
eta suspira horiok
ather ahoetarik.

»Zoazte, itzul zaitezte
Ierusalem hirira,
Espiritu Sainduaren
han zaudete begira.



»Konsolatuko zaituzte
hark are gehiago,
baita zer behar duzen
egin irakatsiko».

Apostoluak hirira
handik ziren bihurtu,
Espiritu Saindua iausts
artean han egotu.

O Jesus zeruetara
triumfantki igana,
zeruetara igateko
egiguzu dohaiña.

ESPIRITU SAINDUAREN IAUSTEAREN GAÑEAN

**Pentekostekotz
KANTA**

Apostoluak zeudezela
elkhargana bildurik,
iudu gaixtoen mehatxu
handiek iziturik,

khar handirekin othoizten
zuten Iainko iustua,
bidal ziezen agindu
Espiritu Saindua.

Soiñu handi bat egin zen
supituki airean,
egin ohi den bezala
tormentaren sartzean.

Orduan iausti zitzaien
buruen gainetara
suaren kharrazko mihi
batzuekin gisara.

Bere bihotz izituak
zerozten animatu,
eta mintzatzaille eder
zituen errendatu.

Animoski ilkhi ziren
hiriko plazetara,
eraiteko Iainkoaren
hitza bihotzetara.



Orduan Ierusalemen
zen nazionetarik,
zeruaren azpian zen
mota guztietarik.

Miretsirik hasi ziren
aho batez erraten:
gizon hauk nola zaizkigu
geure mihiz mintzatzen?

Eztire Galileako
hauk guztiak semeak?
Nola, bada, dakizkitez
gure hitz egiteak?

Mundu bazter zabalera
gero ziren banatu,
norat ere baitzituen
Iainkoak inspiratu.

Jesus Kristoren legea
han predikatu zuten,
askoa rima onera
itzularazi zuten.

Handiei mintzo zitzaizten
segurantzaz betherik,
eta erreputak ematen
gogoetsi gaberik.

Hekien heldu zitzaaien
azkenean kolera,
ezen guztiak zituzten
kondenatu hiltzera.

Tormentetan etzitzaien
animorik faltatu,
Espiritu Sainduak hala
zituen animatu.

Arren, bada, Espiritu
animo emaillea,
berthutera Zuk anima
zazu bihotz enea.



SAKRAMENDU SAINDUAREN GAÑEAN

Besta Berrikotz KANTA

O Jesus maitatzekoa,
ortzegun arratzean
afaldu zinen hamabi
Apostoluen artean.

Ogia hartu zinduen
esku sainduetara,
eta arnoa isuri
zilharrezko thazara.

«O maiteak, zinaroen
erran Apostoluei,
begira diezezue
eskutan tudan gauzei.

»Hau da ene gorputza, hau
berriz ene odola,
etzezazuela egin
dudarik hala ezteela.

»Hautarik zaitezte ene
mahaiñean sasia:
hauk emanen darotzue
sekulako bizia».

Hitz hauk erran bezain
ogia haragira
itzuli zen eta arnoa
zure odol garbira.

Kanpoko itxura baizen
etzitzaien gelditu,
barrena zen odol eta
haragira mudatu.

Orduan eman ziñaroen
zeure azken bahia,
nola herstu bai zen zure
heriotze larria.

Ezin eman ziniezeken,
Iaun noblea, ioiarik
zure gorputz sainduan baiño
preziatuagorik.

Banket hartzaz sasiatu
ziren Apostoluak;
gozatu zituzten zure
graziaren donuak.

Gero erran zinaroen:
«Ni berriz iaus artean
hau bera egikezue
ene orhoitzapenean.

»Hautzaz haziko dena da
geroenez piztuko,
eta mende fin gabeen
dohatsuki biziko».

Gauza hura egin zuten
Apostolu sainduak,
hura bera egiten dugu
guk hekin ondokoek.

Arren, bada, orhoit zaite
gutzaz zeru gorean,
gu egiten garen legez
egun zutzaz lurrean.



SAKRAMENDU SAINDUAREN GAÑEAN

Besta Berrikotz BERZE KANTA

Ea, girstinoak, xahu
tzatzue athariak,
eta karrikara etxa
arrosa eta liliak.

Heda etzatzue longa
xuriak arroilletan,
tapizeria ederrak
halaber paretetan.

Etxe aitzineta ifin
tzatzue aldareak,
eta hetan ere isensu
usain onez betheak.

Belhauriko iar zaitezte
eskoin esker herrunkan,
ezen pasatzera doha
Iaun handia karrikan.

Egun berezia ohi da
Besta Berri eguna,
sakramendua ohoratzeko
ordenatu zaikuna.

Ohora dezagun, beraz,
egun saindu hunetan,
kantatzen tugula kopla
hauk haren ohoretan:

«Jesus Kristo, zaudelarik
Aitaren eskuñean,
halarik aurkhitzen zare
ostia barrenean.

Osoan osoa zare,
bai osoa partean:
zure gorputza ezta hausten
hura hausten denean.

Begiaz etzakusagu
orhe konsekratuan,
esparantza dugu egiñen
zaitugula zeruan.

Orduan saziatuko
duzu gure begia,
anartean behar dugu
hartu pazientzia.

Halarik askotan zare
aldarean agertu,
sinhetsgogorrek nahiz fede
sainduan konfirmatu.

O Jainko Semea, zure
Gorputz preziatua
edireten da hostia
non baita sakratua.

Oriente, Okzidente,
Iphar eta Egoan,
zenbait ere aldare baita
mundu unibersoan.

Hartzaz gaituzu, iaun ona,
kreaturak bazkatzen,
zeure odol sakratuaz
halaber edaraten.

Geure faltaz dugunean
galdu zure grazia,
Zuk itzultzen darokuzu
hartzaz hura guztia.



Mahaiña diozu mundu
guztiari hedatzen,
dignekei rezebitzera
bat bedera manatzen.

Onak eta gaixtoak ere
hartzen dute orobat,
nola argitzen baitaroe
iguziak orobat.

Onek iaten dute bere
arimaren onetan:
gaixtoek kontrata haren
daiñu eta kaltetan.

Banket handiak dituzte
erregeek egiten,
bere handigoak hetan
dituzte erakusten.

Ihizi billha daroe
gerla egiten xoriei,
eta ez sosegurik uzten
itsasoko arraiñei.

Hekin banketek eztute
hunekin ikhusterik,
zerengatik ez baitute
hek hazten arimarik.

Nektar eta anbrosiak
ohi ziren famatu,
hekien moianez ordean
ezta nior salbatu.

Mannak zituen sapore
ianhari guztienak,
Manna saildu hunek ordean
grazia guztienak.

Manna ian zuten iuduak
hil ziren desertuan,
hau ian duten dohatsuak
bizi dire zeruan.

O ianhari indartsua,
arren, ene bizia
gogoan iduki zazu
goza artean gloria.

Bekhokia agertua
han zaitut ikhusiko,
han darotzut ontasunen
eskerra itzuliko.



SAN TOMASEN KOPLAK SAKRAMENDU SAINDUARI

Adoratzan zaitut, Iainko
beloz gerizatua,
eta ogiaren formaz
gaiñetik itzaldua.

Hala zaitzu zuri ene
bihotza beheratzen,
kontenplaztean indarra
non baitzaio flakutzen.

Bista eta ukitzea
guztiz zaizkit trunpatzen;
behariez baizen eztut
hor zarela sinhesten.

Sinhesten dut Iainko Semeak
erran duen guztia,
zeren ez baita deus ere
munduan hain egia.

Gurutzean ehortzi zen
xoilki iainkotasuna;
baiñan harekin batean
hemen gizatasuna.

Biak sinhesten tudala
eta aithortzen xahuki,
ohoin onak galdetua
galdetzen dut humilki.

Tomasek bezala eztut
zauririk begiesten,
alabaiñan neure Iainko
Zu zaitut konfesatzen.

Egidazu berretuaz
dohatan sinhestea,
eta esperantzarekin
zure onheristea.

O Iaunaren iltzearen
orhoitzapen argia,
orhe gozo eta ezti,
emaillea bizia.

Arren, ene arimari
egiozu dohaiña,
zutzaz bizi dadin eta
bilha eztezan ordaiña.

O Pelikano, bihotzez
Jesus maitatzekoa,
zeure odolaz xahu zazu
hutsez lohi gaxoa.

Ezen zure odolaren
xortarik gutienak
xahu tzake munduaren
bekhatu zikhiñenak.

O Jesuskristo, estalirik
ikhusten zaitudana:
konpli zazu, arren, hanbat
desiratzen dudana:

Bekhokia agertua
egun batez zeruan
ikhus zaitzadan klaroki
zeure tronu sainduan.



AZKEN JUDIZIOAREN GAÑEAN

KANTA

Abendokotz

Giristinoak, adi zazue
berri izigarria,
iuiatzera ethorriko
dela Iuje handia.

Lehen zerutik iautsi zen
mundua salbatzeko;
berriz ere iautsi behar
du haren iuiatzeko.

Aingeru sainduak ditu
bidalduko zerutik,
mundu guztia trunpetaz
iratzartzeagatik.

Hillek adituko dute
klaroïñaren soiñua,
guztiek hobietarik
altxatuko burua.

Bilduko dire Josafat
famatuko landara;
hoberenak izanen du
bihotzean ikhara.

Elkhar ganik Aingeruek
dituzte bereziko,
onak eskuïñera, gaixtoak
ezkerrera bilduko.

Gaixtoak egonen dire
larri buruz behera,
iujeari ez ausartez
xuxen begiratzera.

Hurbil izanen dituzte
bere tentatzailleak,
hala nola pazientek
burreu penatzailleak.

Marraska eginen dute
mendi goren aldera;
mendiak, eror zaitezte,
othoi, gure gaiñera.

Arren, estal etzazue
gure gaixtakeriak,
iujearen aitzïñean
daudezen ehortziak.

Iustuak egonen dire
manera onhestean,
aingeru begirailleak
dituztela aldean.

Behar bezela denean
arrimatu jendea,
zeruetarik iautsiko
da orduan Iujea.

Maiestatez betherik da
iautsiko hedoiean,
hortzadar koloretsua
diduriken batean.

Aingeruez izanen da
guztia ingurtua,
bandera ekharle duela
Migel Arkanjelua.

Banderatzat du gurutze
saindua ekharriko,
hartan tormentatu zela
aditzera emateko.



Iarriko da Olibeteko
mendiaren gainean,
preparaturik bathuko
zaion tronu ederrean.

Geure obren kontu hertsia
daroku galdegiñen,
ezta disimulatzeko
han lekhurik izanen.

Lehenik iustuei zaie
arraiki mintzatuko,
eta hunela solasa
hei daroe hasiko:

«O ene Aitaren eta
ene bihotzekoak,
zuek izatu zarete
ene gogarakoak.

»Ezen zuei zaizkitzue
probeak urrikaldu,
eta ditutzue zeuen
ahalaz faboratu.

»Gose zenari ziñioten
hautsi zuen ogitik,
eta egarri zenari
eman zeuen arnotik.

»Billuzgorriak halaber
ditutzue beztitu,
fiñean etzuenari
zeuenetik partitu.

»Zatozte, bada, enekin
dohatsuen Kortera,
sekulako plazer eta
atsegiñen hartzera».

Gero gaixtoetara du
bisaia itzuliko,
zeiña baitaroe guztiz
aserre erakutsiko.

Hasiko zaie kolera
handirekin mintzaten,
izialduraz bihotzak
daroztela bethetzen.

O jende madarikatu,
pietate gabeak,
zeiñi ez baitzaizkitzue
urrikaldu probeak.

Ordaiñez, bada, zoazte
sekulako kharrera,
urrikaldu etzaiztenen
burreuekin artera.

Sententzia eman eta
onak zeru gainera
ioanen dire, eta gaixtoak
ifernuko lezera.

Onak ioanen dira kanta
eta errepiketan;
gaixtoak berriz marraska
eta auhen tristetan.

O Jesuskristo, mundua
iuiatzeko duzuna:
egikedazu onetarik
izateko ontasuna.



SAINDU GUZTIEI OTHOITZ

Umiasaindrukotz

S. BERNATEN PREDIKUETATIK ATHERATUA

Parabisu zabaleko
saindu gloriosoak,
urrikal bekizkitzue,
othoi, gure ondikoak.

Urrikal bekizkitzue,
diotsuet, lastimak
zeiñek baitarozkigute
hersten geure arimak.

Etzarete Iaun onaren
xolki adiskideak,
zeuen ontasunagatik
baiña oraiño gureak.

Zuek dezaguzkitzue
gure peril handiak,
zuek gure ezin egin
eta penak guztiak.

Ezen zuei natzaitzue
mintzo, o dohatsuak,
zeiñak izan baitzarete
gu nola tentatuak.

Badakit aingeru onei
gaiztela urrikaltzen;
zuen baithan naiz ordean
gehiago fidatzen.

Zeren izan baitzarete
lurrean gure berdiñak,
hezurrez eta haragiz
gu bezala egiñak.

Lekhuko ditugu zuen
relikia sainduak,
zein baitire aldaretan
gutzaz ohoratuak.

Hartarakotzat, o saindu
guztien araldea,
zeiñez ohoratzen baita
Iaun onaren kortea;

Eztezazuela ahantz
zeuen lagun tristeak,
nola Josef, Faraonen
gizon esker gabeak.

Aitzitik orhoit zaitetez,
o bihotz berak, gutzaz,
Iauna eginz en bezala
ohoiñaren othoitaz.

Ardiets diezaguzue
ahal faborea, arren,
nola baitzarete mianbro
Jesuskristo beraren.

Atsegin har ezazue,
othoi, gure ontasunaz,
guk hartzen dugun bezala
bihotzean zuenaz.

Eztugu dudatzen ezen
bethiere gurera
arthatsu etzaretela,
o sainduak, aldera.

Zeren ezpaitzarete azken
gloriaz gozaturen,
non lehen zuen balsara
gu ere hel ez gaiten.



Kontinua ezazue,
othoi, ardura hura,
zuen ondoan gu ere
igan gaiten zerura.

Han Iauna lauda dezagun
guztio elkarrekin,
hanbat fabore munduan
zeren darokun egin.

O Profeta, Apostolu,
martir eta Birjinak,
enplegatzazue gure
gatik ahal eginak.

Zeruetan baduzue
Iauna baithan podore,
ardiestekotzat zeuen
maiteentzat fabore.

Arren, bada, zeruetako
burjesen konpañia,
ardiets diezaguzue
eske gauden grazia.

Zuri Iaunaren ondoan
eskerrak itzultzeko,
zeren izan zaituztegun
zeruan ararteko.

PURGATORIOKO ARIMENTZAT OTHOITZA

Amuru Saindru Biharamunekotz

Iauna, urrikal bekizkitzu
arima defuntuak,
purgatorioko suan
ondikoz penatuak.

Konsidera zazu hekin
indar guztiz flakoa,
eta suaren tormenta
ezin pairatuzkoa.

Khar bizia sartzen zaie
sustantzia barrena,
penak aterarazitzen
daroela auhena.

Eztezazula permeti
gehiago han dauden,
aitzitik athera itzazu,
othoi, lehen bai lehen.

Zuri satisfakzione
egiteko indarrak
aithor dugu kreaturek
eztutela askirik.

Kontenta zaitea, othoi,
sofritu dituztenez,
aitziñera gehiago
usatu gabe penez.

Urrea suak duela
badakigu purgatzan,
baiñan berzeña arimak
purga etzatzu, arren.



Barkha dietzetzu pena
hobenek mereziak;
hala aurkhituko dire
purgatuak guztiak.

Zeronek ikhusten tutzu
nola leze beltzean
pulunpatuak daudezen
khar bizien artean.

Karzela izigarrian
daude hagarandurik,
bere libratzeko ezin
daditela obrarik.

Errezibi zatzu, othoi,
gure sufrajioak,
zeiñak munduan baikare
hekien ondokoak.

Labur diezezu, Iauna,
arren, bere ephea,
eta muga onez erakuts
zeure begitarte.

Egin diezezu, Iauna,
othoi, fabore hura,
asko berzeri ia egin
diozun eredura.

Gutziz ere egiezu
gure aitzinekoiei,
ahaide, adiskide eta
berze gainerakoiei.

Isur diezezu zeure
graziaren ihintza,
su beroaren diezen
iraungi khar bortitza.

Manatzatzu, othoi, hekin
aingeru guardariak,
ekhar dietzetzen bere
librantzaren berriak.

Eta dietzakitzuten
presenta aitzinean,
pagurik lauda zaitzaten
dohatsuen artean.

Guri ere egikeguzu
laster fabore bera,
baldin erortzen bagare
lazeria berera.

Guk ere hekien balsan
Zu lauda zaitzakegun,
zeren hainbertze fabore
egin darokeguzun.



LIBURUTXO HUNEN HIRURGARREN PARTEA

*Iainkoaren eta Sainduen oboretako
kanta batzuk orenen gisa*

Asteke egun guztietako bana

Iainkoari orenak gutzaz duen arduraren gañean **IGANDEKOTZ**

O Iainko, zeñak baituzu
gutzaz artha handia.
adi zazu, othoi, zeure
orenen eresia.

Zure ordenantza sainduz
irauten du munduak,
elkharri aldi egiten
har eta gau illhunak.

Urthearen inguruak
Zu bedinkatzen zaitu,
sasoiñak xuxen ekhartzen
zeren baitiotzozu.

Tormenta eta haizeak
Zuk ditutzu ematen,
itsasoari Zuk bere
mugarriak ifintzen.

Iguzkia Zuk itzultzen
darokuzu goizetan,
hark begiak argiturik
has gaitezen lanetan.

Akhabatu duenean
gero bere kursua,
gerizatzen darokuzu
har dezagun pausua.

Ordañez darozkigutzu
izar xeheak pizten,
gau beltzeko illhunbetan
hetzaz gida gaitezen.



Gure gatik, Iauna, egiten
dituzu hauk guztiak,
bethi erne dituzula
gure gainean begiak.

Esker bada eta aithor
duzula, Iaun handia,
zeren hain arthatsua den
zure probidenzia.

Iainko bat denari bere perfekzioeen gainean orenak **ASTELEHENEKOTZ**

Iongoiko bakhotxa: zure
kantatzen tut orenak,
arren, entzun tzatzu zeure
laudorio zuzenak.

O Iaun handia, zeurenez
duzu zeure izatea,
nihoren ganik izatu
gabe lehen astea.

Halaber eztuzu fiñik
nihoiz ere izanen,
aitzitik duzu bethiko
denboretan iraunen.

Lehu guztiak dituzu
bethetzen esenziaz,
presenziaz eta zeure
ahal guztiz handiaz.

Zeure zuhurtziaz duzu
mundua gobernatzen,
non eskas dela deus ere
ez baita edireten.

Karitatez bethea da
zure bihotz noblea,
ezen zeure karguz hartzen
duzu emaxurtx probea.

Bide gaberik eztuzu
niola ere laudatzen,
aitzitik zuzena duzu
gehiago prezatzen.



Fiñean ezta aurkhitzen
onik kreaturetan,
no perfektiago aurkhi
eztadin zure baithan.

Arren, bada, perfekzione
guztien itsasoa,
zaren bethi ene iabe
eta habe sendoa.

Hirurtasunaren orenak
ASTEARTEKOTZ
eta Trinitate Sainduaren
IGANDEKOTZ

Hirurtasuna, zure tut
erran gogo orenak;
arren, entzuntzatu othoitz
bekhatorosarenak.

Aita, Seme, Espiritu
baitzare sakratua,
zurez osatzen da Korte
sainduko konseillua.

Hirur presuna zarete,
baiña Iainko bat xoilki,
zain, ondo eta adarrak
nola zuhaitz bat bethi.

Zuetarik bakhotxa da
zuhur eta iakintsu,
bata berzea bezanbat
handi eta indartsu.

Merezi onez zaituzte
aingeruek laudatzen,
saindu, saindu eta saindu
darotzuela kantatzen.

Gu ere orobat gare
egitera tenitu,
zeren baitugu ontasun
asko errezibitu.



Ezen Zuk gaituzu, Aita,
 athera ezteusetik,
 eta Zuk Semeaz geure
 libratu etsaetik.

Zuk berriz santifikatu
 gaitutzu, Espiritua,
 zordun gare laudatzera
 zuen bilkhu saildua.

O Hirurtasun, mundua
 faboratzen duzuna:
 arren, iguzu fabore
 bethi, eskas duguna.

Iainko Aitaren orenak **ASTEAZKEKENOTZ**

Iainko Aita, laudatzera
 noha zure izena:
 adi zazu, othoi, ene
 ahaire kantarena.

Zazpi egunez zinduen
 egin mundu osoa:
 astelehenean zeru,
 lur eta itsasoa.

Astehartean halaber
 hats hartzeko airea,
 gero zeruaren kontra
 den su berotzailea.

Asteazkenean lurra
 zinduen berregindu,
 belhar eta zuhaitz ferdez
 hartarakotz beztitu.

Orzegunean zinduen
 itsasora beatu,
 eta igerikalari
 arraiñak han sortu.

Egun berean zintuen
 kreatu egaztiñak,
 zein zeñi bere motazko
 emanik kanta ariñak.

Larunbatean zintuen
 moldatu larrabreak,
 eta Adan eta Eba
 gure buruzagiak.



Gauza hauk zintuenean
sei egunez obratu,
gero zinduen Igande
egunean pausatu.

Arren, bada, Iainko Aita,
gauzen kreatora,
fabora nazazu zeure
kreatura feblea.

Iainko Semearen orenak
ORZEGUNEKOTZ
eta haren besta guztitakotz

Iainko Seme, enegatik
gizon egin zina:
ezin bihur diezakezut
laudorio zuzena.

Gizonaren obra gabe
Zu konzebitu zinen,
eta Eguberri gauean
Betleenen sorthu zinen.

Zortzigarren egunean
zinen zirkunzidatu,
handiks arri erregeek
humilki adoratu.

Iaiok geroztik berrogei
egun baten buruan,
burasok presentatu
zinituzten tenpluan.

Handitu eta iuduak
zitzaizkitzun bekhaiztu,
inbidiaz zinituzten
gurutzera altxatu.

Hiltzeko bezperan egin
zinduen othuruntza,
Apostoluei ianhari
eman zeure gorputza.

Bazko egunean piztu
zinen hillen artetik,
zeruetako bidea
arimei libratu.



Salbatore egunean
igan ziñen zerura;
iuatzera ethorriko
zare berriz mundura.

O Iainko Semea, arren,
Aitaren aitzinean
zaren ene ararteko
herstura eta menean.

Espiritu Sainduaren orenak
ORZIRALEKOTZ
eta Pentekoste egunekotz

Espiritu Saindua, zure
aiphatzen tut orenak,
arren, entzun tzatzu ene
suspira eta auhenak.

O Amudio saindua
zure da ethorkia,
Aita eta Semearen
baitharik ethorria.

Karitate handiz zare
gure gana bethea:
Zuk bidaltzen darokuzu
premian faborea.

Gure bihotz tristeak zuk
ditutzu konsolatzen,
izialdura handitan
Zuk kharrez animatzen.

Hala animatu zintuen
Apostolu sainduak,
hala martir Iauna gatik
bizia fiñatuak.

Zuk halaber eskolatzen
duzu gure mihia,
errege eta prinzei
nola ihardats egia.

Zure baitharik ditugu
Zazpi dohain hautuak,
zure baitharik hamabi
pare gabe fruituak.



Elizama sainduaren
Zu zare pillotua;
Zu kristau debot guztien
habe eta sostengua.

Arren, bada, Espiritu
amudioz bethea:
idukazu enegana
zure karitatea.

Ama Birjinaren orenak
LARUNBATEKOTZ
eta haren bestaburuetakotz

O Birjina, bekhtore
guztien faborea:
adi zazu, othoi, zeure
orenen ahairea.

O Jongoikoaren Ama,
Zu zeroni bakharrik
gatzatu zinen Adamen
faltan kutsu gaberik.

Sorthu ziñen eskharririk
mundura bozkario,
zeren zure ganik behar
baitzen Mesias iaio.

Burasoek presentatu
ziñituzten tenpluan,
hirur urthe eta erditara
heldu ziñen orduan.

Handitu eta bihurtu
ziñen Nazaretera,
harat ethorri zitzaitzun
Gabriel salutatzera.

Handik sarri gero ziñen
ioan mendi barrena,
ikhustera Elisabet
zure kusin maitena.

Erdi ziñenean egun
berrogeiren buruan,
legearen konplitzeko
sarthu ziñen tenpluan.



Gero ethorri zenean
zure azken orena,
iaunak altxatu zintuen
zeruetan barrena.

Arren, bada, Semearen
eskuñean zaudena,
Haren gana zaren, bada,
ararteko xuxena.

Sainduen orenak hekin bestetakotz
APOSTOLUEN BESTETAKOTZ

O Apostolu saindua,
zeure orenetara,
beharria, othoi, makhur
ezazu kantetara.

O saindu obedienta,
Jesus onak deitzean:
batheletik ilkhi ziñen
laster haren hitzean.

Ur bazterrean utzirik
sare eta sediña,
entzutera abiatu
ziñen haren doktriña.

Hain eskola sanduan sarri
egin ziñen iakintsun,
zeren baitzinduen dotor
adituena entzun.

Eta zeren harengatik
ziñen onez billuzi,
Apostoluen lerrora
zinituen hautetsi.

hala lehen zinelarik
urean arrantzaille,
gizon basatuen egin
zintuen atzemaille.

Haren dotriña zinduen
munduan predikatu,
haren amoreak gatik
zeure bizia galdu.



Zeruetako bidea
zinduen irakatsi,
zure exenplu onari
asko berze iarraiki.

Arren, bada, Elizaren
harroñ guztiz sendoa:
zeruetan zaren, othoi,
ene arartekoa.

EBANJELISTEN BESTETAKOTZ

Ebanjelista saildua,
zuk, othoi, zeureenak,
ene ahotik entzun tzatzu
ahaire orenenak.

Notari leiala, Jesus
onaren hitz eztiak
zuk utzi ziñaroskopigun
eskribuz ezarriak.

Zeure odolaz zintuen
azkenean firmatu,
noiz ere baitziñen hekin
ukhatzera ertxatu.

Apostoluak laudatu
zuten zure nekea,
haren gogoan hartzera
exortatu jendea.

Zeronek ere zinduen
jendetan predikatu,
paperean baitzinduen
zer ere eskribatu.

Guztiz kexatu ziñen
obran atheratzera,
exenplu on emateko
infidelen artera.

Hala konplitu zinduen
Jesus Kristok errana,
hitzen arauera behar
zela athera lana.



Gauza bera egin zuen
Berak ere lurrian,
popluari predikatzen
hasi zitzaionean.

Arren, bada, zeure hitzen
obretan emaillea:
ardiats diezadazu
halako faborea.

MARTIRIEN BESTETAKOTZ

O martiri handia, zure
heriotzearenak,
ene ahotik entzun tzatzu,
arren, orhoitzapenak.

O ezkutari balenta:
zure bihotz handiak
mesprezatu zituen peril
izigarri guztiak.

Tiranoa erakharri
eta bere aitziñera,
esaiatu zen legeaz
zuri ukharazitza.

Behin zerotzun hitz eder
eta onez lausengatu,
eta gero heriotze
kruelaz dixidatu.

Ikhusirik etziñela
hitzetara behatzen,
aserrerik tormentara
altxarazi zintuen.

Han penarazi zintuen
ezin erran gisara,
ertxatzen zinituela
bere sekta gaixtora.

Alabaiñan iguriki
ziñoen tormentari
eta hartan errendatu
arima zeruari.



O martir animotsua.
zure odol isuriak
Elizama bistatzen du
nola arrosa gorriak.

Arren, bada, irabazi
duzun kredit handiaz
fabora nazazu, othoi,
behar dudan graziaz.

APHEZPIKU SAINDUEN BESTETAKOTZ

O Aphezpiku saindua,
zure bizi prestua
laudatzera noa, adi
zazu ene kantua.

Bortxa handiz zerotzuten
har arazi kargua,
zergatik baitziñakien
zela karga pisua.

Alabaiñan deskargua
ungi egin zinduen,
arimeri progotxua
zinduela bilhatzen.

Ziñelarik dignitate
handian ezarria,
halarikan gorbarnatzen
zinen nola xipia.

Munduari emaiteko
agerriki exenplu,
karguari etzaiola
nihor behar handitu.

Zeure doktriñaz zinduen
bazkatzen arthaldea,
bizi onaz animatzen
berthutera jendea.

Abariziarik etzen
zure baitan aurkhitzen,
ezen probeak zintuen
zeure athetan hazten.



Fiñean argitu zinduen
bizi onaz mundua,
hala nola illhargiak
gau illunbez belztua.

Arren, bada, berthuteen
mirail guztiz argia,
ungi bizitzeko ardiats
diezadazu grazia.

DOKTOR SAINDUEN BESTETAKOTZ

O dotor ungi ikhasia:
zure oren sailduak
kantatzen tut, entzuntzatu,
othoi, hekin tonuak.

O doktriñaren zuzia,
adin beheratarik
zeure etxetik ilkhi zinen
eskolatzeagatik.

Deboxei hasi zinaizten
haurdanik apartatzen,
eta letra saildutara
zeure gogoa etxatzen.

Eliza eta eskolara
zinakien bidea,
nihora ere berzetara
etzen urrats zurea.

Adiñetara noiz ere
gero heldu baitziñen,
jendartean hasi ziñen
ikhasiak banatzen.

Gaixtoen kontra zinduen
predikatzen egia,
edo pobre, edo aberats,
etzinduen antsia.

Konsolatzen zinituen
presuna nekhatuak,
baita mehatxatzen bere
biziotan sorthuak.



Mendi goretan seiñale
den bezala hiria,
hala munduan zen zure
seiñale zuhurtzia.

Arren, bada, Elizaren
lanpa guztiz argia,
argi zazu, othoi, ene
arima nahasia.

ABADEEN BESTETAKOTZ

O asko fraide deboten
Aita buruzagia,
zeure orenen entzuteko
har ezazu astia.

Zure prestutasuna zen
hanbat aldiz frogatu,
non lagunek baitzintuzten
nausitzara altxatu.

Erregela konplitzeko
zinen dilijentena,
iguzkia planetetan
nola ibilltzailena.

Lehenik iaikitzen ziñen
eta etziten azkenik,
batzar guztietan ziñen
aurkhitzen aitziñenik.

Burioperekin nihor
etzinduen manatzen,
baiñan hitzaz baino lehen
exenpluaz atzartzen.

Argitzen zintuen zeure
bizi onaz fraideak,
iguzkiak hala nola
argizagi xcheak.

Abantailarik deusetan
etzinduen galdetzen,
den txipienarekien
baina aitzitik berdintzen.



Hargatik zure gainean
zedutzaten begiak,
berthuteari zerraizkon
fraideak idekiak.

Arren, bada, konpañia
sainduen gidaria,
zerura gida nazazu,
bekhatoros handia.

KONFESOREN BESTETAKOTZ

O zorionez bethea,
zuk, othoi, zeureenak,
ene ahotik entzuntzatu
kanta berthuteenak.

Hirur etsai herratsuek
zerotzuten gerla egin,
Iaunaren legean nahiz
nonbaitik huts eragin.

Satan gaixtoa zen bere
esaiatu aldetik,
mundua beretik eta
haragia beretik.

Alabaiñan herensuge
izigarria, zeñak
etzuen aurkhitu nondik
zu aseki eztenak.

Zuri gelditu zitzaitzun
biktoria osoa,
hirur etsaiei ahalke
eta mesprezioa.

Hargatik Iaunak zintuen
gloriaz khoronatu,
hargatik eman sainduen
artean leku.

Munduan ere izatu
zintuen ohoreak,
ohorez altxatu ziren
relikia zureak.



Zure thonban ere ziren
egin mirakuiluak,
hebañak xuxendu eta
bai argitu itsuak.

Arren, bada, titxa onean
iaio ziñen saildua,
bethi egon zaite nitzaz
zeruan orhoitua.

BIRJINEN BESTETAKOTZ

O birjina sakratuak,
zuen oren sailduak
kantatzera noa, entzun
tatzue ene kantuak.

Zuetarik Iaunak egin
zituen burasoak,
zuetarik adiskide
eta bere urkoak.

Birjinak lo egin zuen
Iaun onaren alzoan,
birjinak egotu ziren
gurutzearen ondoan.

Zuek izatu zarete
munduko zuhurrenak,
zuek Iauna puxantaren
martiri handienak.

Sala hurrezko horretan
pasaiatzen denean,
lehenak zuek zarete
bethi haren hatzean.

Zuek kantatzen duzue
beregainki airea,
zein ezpaita berze nihork
posible kantatzea.

Zuek zeruan tutzue
kadira hautuenak:
zuek gradu eta izen
guztien ederrenak.



Zuei eman zaizkitzue
bulute urrezkoak,
zuei eskuetan palma
ezin ihartuzkoak.

O birjina, zeruetan
aingeruen hurrenak,
zareten guri fabore
egitera lehenak.

ALHARGUN SAINDUEN BESTETAKOTZ

O alhargun dohatsua,
arren, othoi, orenak
entzuntzatu, gomendatzen
zuri zaitzunarenak.

Iaunak bere ganat deithuz
geroz zure senharra,
tortolla bezala bizi
izan ziñen baxharra.

Munduko banaloriak
zinituen largatu,
eta zeure gogoetak
zeruetara altxatu.

Presuna debotekien
zinduen konbersatzen,
monasterio eta Eliza
sainduak bisitatzen.

Barur egunak zintuen
begiratzten sainduki
austeritatez gorputza
gaztigatzen gogorki.

Zure etxean gau eta egun
Iauna zen laudatua,
ziduriela serora
deboten komentua.

Umeak hazi zintuen
Iaunaren beldurrean,
seinioralei ostatu
eman zeure etxean.



Persuna sainduei oiñak
ziñarozten xahutzen,
karzela eta ospitale
karitatez ikhusten.

Arren, andre alharguntza
sainduki eramana,
ardiats diezadazu
fiñ on baten dohaiña.

EDOZEIN EMAZTE SAINDUEN BESTETAKOTZ

O andre saindua, arren,
zeure berthuteenak
ene ahotik entzuntzatzu
erneki aiphamenak.

O andre prestua, mundu
zabalean zurerik
gaitz lizate aurkhitzea
emakume parerik.

Eme eta sehiekin
ziñhardukien arren,
egotu ziñen Iaunaren
bethi legean xuxen.

Ergelkeriei itsutu
ziñaroen begia,
eta berthutera eman
zeure gogo guztia.

Zerori ziñen etxeko
beharretan nekhatzen,
zerorrek zerbitzariei
exenplu on ematen.

Eskua zabaldu ohi
zinaroen pobrei,
gutziz ixil eta ahalkez
ezin ausartatuei.

Etzinduen biziorik
zeure etxean sofritzen,
sehiak eta umeak
berdinki korrejitzen.



Fiñean, Iaunaren zinduen
bihotzean ardura.
hargatik triunfarekin
igan ziñen zerura.

Arren, bada, andre saindu
munduak laudatua,
zeruetan zaren ene
ararteko hautua.

AINGERUEN OHORETAN IAUNDONI MIKELEKOTZ

O aingeru, Iainkoaren
ezkutari maiteak,
entzun etzatzue, othoi,
gure kopla aireak.

Zeruetako nabean
batailla eman zenean,
zuek aurkhitu zineten
Iaunaren faborean.

Luzifer ostikaturik
bere iarraitunekin,
zuek gelditu zineten
garai guztiarekin.

Iaunak arramuz zintuzten
khoroatu buruan.
zeren aurkhitu zineten
haren alde gudian.

Begitartea orduan
zerotzuen agertu,
bere grazia sainduan
orduan eskoratu.

Geroztik tutzue haren
egiten beharkiak,
geroztik konplitzen haren
enbaxada guztiak.

Zuek dituztue mundu
eder hunen karguak,
zuek itzultzen ordena
eder batez zeruak.



Zuek dadukatzue lau
elementak eskutik,
batak berzea athera
gabe bere lekhotik.

Zuek ditutzue haize
muthiriak ematen,
itzeak eta marea
zuek neurritz egiten.

Zuek gidatzen tutzue
hedoi eta lainhoak,
zuek aldaratzen aire
gure kaltetakoak.

Lurreko fruituak zuek
ditutzue guardatzen,
bere mugetan uriez
eta ihintzez freskatzen.

Zuek duzue ardura
larrabre guztiena,
baina beregainki gizon
phenez bethearena.

Zuek zaituztegu guarda
geure saihetsekoak,
zuek Iaunaren aldera
geure arartekoak.

Gaixakeriatik zuek
gitutzue hastantzen,
zuek ontasunetara
ahalaz inspiratzen.

Gurkin bethi zaudete
bizi garen artean,
purgatoriotan ere
konsolatzen kharrean.

Ezkaitutzue kitatzen
behin ere fiñean,
Iaun onaren aitzinean
presentatu artean.

Pizten garenean ere
zerura igateko,
hedoietan gora zuek
gaitutzue gidatuko.

Zuen balsan laudatuko
dugu Salbatzaillea,
zuekien iraganen
sekulako mendea.



LIBURUTXO HUNEN LAURGARREN PARTEA

Saindu partikular batzuen ohoretako kantez

IAUNDONI IAUNIREN OHORETAN

1. Iaundoni Iauniren iaiozteza.

Iaundoni Iauni Profeta
guztien ohorea,
adi zazu, othoi, ene
kantaren ahairea.

Iaunak hautatu zintuen
bere aitzingidari,
eta bere ethortzeko
bideen aphaingarri.

Zure aitzinean etzen
izan amen semerik,
zu baino famatuago
eta handiagorik.

Hala izan ziren zure
sortzeko seiñaleak
mirakuillu handiz et
obra handiz betheak.

Sorthu ziñen aitziniñetik
profetek kantaturik,
buraso esteril eta
ia zahartuetarik.

Aingeru batek ziotzon
zure Aita Iaunari,
insensatzen hari zela,
berri on hauk ekharri.

Zakarias, allegera
zaitez bihotzean:
zure othoitza entzun da
zeruaren gainean.



Seme bat izanen duzu,
zeinaz handiagorik
oraino sorthu ez baita
nihor emaztetarik.

Eta nola (egin zion)
ahal duket semea,
ethorri denaz geroztik
ene azken mendea?

Zeure amak konzebitu
zintuen handik sarri,
berria entzunik Birjina
ikhustera ethorri.

Bi kusiñek elkhar zuten
maiteki besarkatu:
zu amaren sabelean
bozkarioz saltatu.

Aingeru onak zioen
orduak ihardatsi:
Zakarias, behar duzu
gauza hori sinhetsi.

Eta zergatik baitzare
duda horretan sarthu,
hau gertha artean mihia
kaptibatuko zaitzu.

Zure Aitaria zitzaion
kaptibatu mihia:
gauza arrotzaz espantu
mundu-herri guztia.

Birjina Ama egotu zen
zure amaren aldean,
hariketa zutzaz ama
erdi zedin artean.

Erditzean ere zen haren
bururditan aurkhitu:
iaiki artean bere esku
sainduz zerbitzatu.

Zure aita bozkarioz
bethe zen bihotzean,
aingeruak erran legez
zu sorthu ziñenean.

Galdetu zioten, ea
nola deithuko ziñen,
erreputarik ordean
ezin bihurtu zuen.

Tinta eta papera khinuz
zituen erakharri,
eta deithuko ziñela
Ioanes, zuen ezarri.

Mihi lotua zitzaion
berehala libratu
eta eskerrak ziotzoz
Iaun onari bihurtu.

2. Iaundoni Iauniren bizia.

Haurtxoa ziñela zeure
etxetik ilkhi ziñen,
eta mortuak barrena
bizitzera ioan ziñen.

Kamelu-larruz beztitu
ziñen guztiz gogorki,
larrapotez eta basa-
eztiz hazi pobreki.



Esku-arrean ur klara
edan ohi zinduen
eta arroken artean
lo egiten zinduen.

Mundu guztia zen zure
bizitzeaz harritu,
Ierusalem betheraiño
zure fama hedatu.

Sinagogatik Dotorak
zitzaizkitzun ethorri
ea Zu Mesias ziñen
ikhasi nahiz berri.

Iauna, zu zare Measias?
zerotzuten galdetu.
Baldin zu bazare, othoi,
garbiki erraguzu.

Ene ondoan heldu da
ni baiño lehen zena,
errege eta monarka
guztietako lehena.

Hunela zinaizten Dotor
ikhasiei mintzatu,
Mesias lurrean zela
zintuen seguratu.

Errepusta iakintsunei
bihurtu zinaroen,
Iaun onaren ohorea
zinduela altxatzen.

Iaunak, ez naiz bekhatuen
garbitzaille bildotsa.
Ni naiz desertuan oihuz
degoenaren botza.

Zuen artean dabilla
egiazko Mesia,
zeiña ezagutzen baitut
neure buruzagia.

Ni haren muthil xipi bat
baizen ez naiz, zeinaren
digne ez bainaiz lexatzeko
zapata-lokharrien.

Berze profetek agindu
zuten xolki mihiaz,
zuk ordean erakutsi
hurbilletik erhiaz.

Berak ere zu zintuen
bere aphezizat hautatu,
ezen Iordango ibaian zuk
zinduen bathaiatu.

3. Iaundoni Iauniren beriotzega.

Desertutik ilkhi ziñen
jendearen artera,
prediku onez Iaunari
bidea aphaintzera.

Ierusalemen erdian
zinduen predikatu,
bere bizitze gaixtoaz
Herodes mehatxatu.

Herodesi zitzaizkion
gaitzitu zure hitzak,
bilhatu zituen zuri
aspertzeko atizak.



Alabari zion zure
burua eskarazi,
Herodesek zuenean
kortean dantzarazi.

Amak plat batean eman
zuen, eta mihia
zilhatu zioen, zeren
erran zuen egia.

Diszipuluak gorputza
altxatxera ioan ziren,
eta thonba ederrean
ohorez eman zuten.

Orain glorioso zaude
zeru izarratuan,
mairu berek ohoratzen
zaituztela munduan.

Zure ohoretan tugu
guk ere pizten suak,
arren, onez errezibi
tzatzu gure botuak.

IAUNDONI BITXINTXO MARTIR ETA APHIZPIKUA ETA LAETUS HAREN LAGUNAREN OHORETAN KANTA

O Martir animotsua,
zure bihotz handiak,
laudatzera gonbidatzen
ditu gure mihiak.

Izena zinduen legez
garaitzaillearena,
hala garaitu zinduen
furia Satanena.

Elizaren zu izatu
zare lanpa argia,
zu jentil eta pagano
itsuen gidaria.

Bizkaia eta Laphurdi
zuk zintuen argitu,
idola falsoek ziñak
baitzituzten itsutu.

Akhitzeko hirira ere
fedearen zuzia
lehenbizirik ekharri
zuk zinduen argia.

Plazaren erdian hasi
zinaizten predikatzen,
zeure hitzak zintuela
mirakuilluz frogatzen.



Guztiarekin aphurrek
hek zituzten sinhetsi,
handi aldeek aitzitik
zinituzten gaitzetsi.

Tribunalaren oiñera
furiar ioan zintuzten,
enganari bat ziñela
akusatu zintuzten.

Iujeak zintuen asko
gauzaz interrogatu,
azkenean zeure fedez
ukatzera ertxatu.

Errepusta zinioen
bihurtu animoski,
eta zeure sinhestean
bethi egon fermuki.

Ikhusirik etziñela
haren gana behatzen,
heriotze kruelera
kondemnatu zintuen.

Halaber zure gorputza
larrera egoztera
ordenatu zuen, xori
goseen bazkatzera.

Heriotzea zinduen
pazientki sofritu,
eta zeure hiltzailleei
gogo onez barkatu.

O Martir animotsua,
zure pazienziak
bentzutu zituen burreu
odoltsuen furiak.

Alexandreak eztire
zurekin konparatu,
Zesar ere etzaizkitzu
urrititik hurbildu.

Laetus zure lagunak du
izatu zorte bera,
hura ere kondemnatu
heriotze berera.

Bihotz handiz besarkatu
zuen martirioa,
eta begitarte onez
ikhusi herioa.

Ezin erran gisa zuten
hura ere tormentatu,
doloretan etzitzaion
animorik faltatu.

O eskutari balentak,
herio mota batez
zerren animak zituzten
errendatu ohorez.

Aingeru onek zituzten
altxatu besoetan,
eta kristauek gorputzak
eraman gau hutsetan.

Lekhu gordean zituzten
ohoreski hortzi,
pagano kruelak nihon
etzetzatentzat aurkhi.

Geroztik egotu ziren
ondoko mendeetan
nihork ere iakin gabe
thonba hortzi hetan.



Jongoikoak nahi izan
zuen azkenean
hekien ohorea ager
zedin jende artean.

Othoitzean zegoela
neskato debot bati
gorputz saildu hek non ziren
zioen irakatsi.

Kristauek zituzten thonba
hetarik aldaratu,
eta ohorezko lekhu
batetara altxatu.

Eliza bat egin zuten
hekien izenean,
eta reliki sianduak
izarri aldarean.

O saildu gloriosoak,
zuen hezur goitiak
ohoratzen tugu, nola
zuen azken-bahiak.

Zuen figurak ditugu
elizetan altxatzen,
eskaldunek zuen besta
saindua idukitzen.

Arren, bada, Eskaldunen
Patroñ gloriosoak,
zareten zeruan bethi
gure arartekoak.

SAN FRANZESEN OHORETAN KANTA

O San Franzes berthuteen
mirail guztiz argia,
adi zazu, othoi, zeure
deboten konfraria.

Zure fabore sailduen
heldu gare eskale;
egin gaitzatzu, othoi, zeure
merezietan partale.

Ziñelarik Italia
herri famatukoa,
eta bereziki Asisa
deitzen den hirikoa:

Guztiarekin zinduen
mundu hunez ukhatu,
halaber zeure herriko
atsegiñak kitatu.

Gehiago: ziñelarik
aberatsen umea,
eta hekin ontasunen
primu eta iabea;

Halarik zinduen zeure
primeza meziprezatu,
eta zeruko ontasun
fin gabeez hautatu.

Oiraiño ziñandezela
zeure Aitaren etxean,
probee ahala ematen
ziñaroen atxean.



Burasoak zitzaizkitzun
sarri hasi bekhaitzen,
hek nekez bilduak laster
zintuela banatzen.

Aphezpikua baithara
ziñituzten zitatu,
hondatzaille bat ziñela
arinki akusatu.

Aphezpikuak buraso
zeureen othoitzera,
kondemnatu zinituen
primezaz billuztera.

Gogotik ziñen munduko
ontasunez billuzi,
tresnak ere burasoen
oiñetara iraitzi.

Hunela erran ziñoen
zeure aita gogorrari:
Orain hobeki erranen
diot Iainko Aitari:

Gure Aita, zeruetan
glorioso zarena,
Zu zare ene Aita, eta ez
lurrean bizi dena.

Esperantza guztia dut
zure baithan ematen:
fabore nazazu neure
ondikoetan, arren.

Berehala gero zeure
xar bat zinduen iauntzi,
eta soka puska batez
zeure gerrian hertsu.

Iandoni Iauni bezala,
desertura ioan ziñen,
serafin baten bizia
han eraman zinduen.

Gauak pasatzen zintuen
kontenplazionetan,
egunak ere obra on
eta othoitz debotetan.

Zeure gorputza zinduen
disziplinaz zehatzen:
tentatzen zintuenean
elhurpera etxatzen.

Ogiz eta urez ziñen
barur gehienean,
hala idukitzen gorputza
bere eginbidean.

Trabailuak etzintuen
behin ere izitzen;
aitzitik handienari
aitziñera ilkhitzen.

Bide luzeak pasatzen
ziñituen orthutsik,
lur gogorraren gaiñean
etziten unhaturik.

Pobrezia zinduen nihork
ez bezala prezatu,
ezen limosna zinduen
errentatzat hautatu.

Jesus Kristoren bizia
imitati zinduen:
bere zauriez hargatik
seiñalatu zintuen.



Mundu gaizki bizia zuk
zinduen reformatu,
Laterango Eliza zuk
erortzetik guardatu.

Zuregatik utzi zuen
Iaunak mundu gaixtoa,
bigarrenean hondatu
gabetarik salboa,

Esparantzarekin ezen
Zure exenplu onak
onera ganbiatuko
zituela gizonak.

Barkhatuaz etzitzaion
Iaunari urrikitu:
ezen zu ziñela kausa
asko zen konbertitu.

Ez nuke sekulan egin,
o san Franzes, zureak
xehero kondatu nahi
banitu berthuteak.

Etziñen kontent zerori
sainduko bizitzeaz:
berzeak ere eragin
nahi ahal antzeaz.

Altxatu zinduen zeure
ordenaren bandera:
asko jende arrimatu
zen haren itzalera.

Guztiak zintuen hirur
partetara berezi;
handik zeure kofradia
hirur sainduak hasi.

Komarka guztietara
laster ziren hedatu;
berze ordenak guztiak
nonbre handiaz xitu.

Ezen zeure ordenan da
konbentu gehiago,
berze ordena sakratu
guztietan den baino.

Xipien ordena eman
ziñioen izena;
alabaiñan guztietako
hedatu gehiena.

Nola erro xipittotik
haritz miragarria
airean gora altxatzen
baita guztiz handia,

Halaber ziñen zu ere
urrunera hedatu,
ziñelarik fraideturik
xipiena deithatu.

Aphezpiku saindu, martir,
dotor eta birjina,
zure ordenan izatu da
ezin konda dadina.

Humiltasun ahantzia
zuk zinduen orhoitu:
parabisu zabala zuk
jende sainduz publatu.

O Patriarka handia,
zure laudoriotan
ezin aski mintza ninte
biziko egunetan.



Materia da handia,
ene ahala xipia.
eskusa ezazu, othoi,
ene indar gutia.

Arren, zure biziaren
orhoitzapen onetan,
ene kargia iduki
zazu, othoi, zeruetan.

Halaber zuek zeruan
zareten dohatsuak,
haren banderen azpian
ibilli soldaduak.

Iduki nazazu, othoi,
zeuen gomendioan,
bizi naizeno balderna
kordoñ sakratukoan.

SANT' IGNAZIO LOHYOLAKOARI ESKERRAK

O Ignazio, Eskaldun
guztien ohorea:
zeruetan zaren, othoi,
gure othoitzgillea.

Kitaturik gerletako
bandera, urguilluak,
hautatu zintuen Jesus
onaren konseilluak.

Franzes Xabier zen zure
banderara ethorri,
zeiñ baitzinduen Indien
Apostolu egorri.

Zure banderara ziren
bi anahia *Egiak*,
Aitonen seme nobleki
iauregian haziak.

Zure banderara oraiño
Aios Onatikoa,
zure banderara Ankieta
ohore Brazilgoa.

Hauk guztiak ziren zure
nazio noblekoak,
zure hizkuntzako eta
zure bihotzekoak.

Zure banderara asko
berze zen arrimatu:
Faber, Laynez eta Iaius
ez azkenak gerthatu.



Bidaldu zintuen munduz
 mundu predikatzeraz,
 fede iraungi hurrena
 zure sutik piztera.

Hasi ziñen hitz sailduaz
 jendea konbertitzen,
 Paristar laborariak
 nola asmatu baitzuen.

Hasi ziñen gerla egiten
 Luter apostatari,
 hasi bihotza argitzen
 infidel itsuari.

Eskolak zintuen bazter
 guztietan ideki,
 hetan gazte errebesak
 berthutera irai.

O Ignazio saildua,
 zure laudorioak
 gaitz lizate kondatzea
 gizonaren ahoak.

Zuri zordun zaitzu Europa
 Calviñek nahasia,
 zuri Amerika, zuri
 bazter zabal Asia.

Zuri oraiño zordun zaitzu
 giristiño herria,
 zuri fiñean aurkhitu den
 berze mundu berria.

Bereziki ni nazaitzu
 zordun, zeren zuretan,
 dakidana ikhasi baitut
 eskola sailduetan.

Orain guztiz berriroki
 osasuna galdua,
 zeren izan dudane zure
 othoitzez kobratua.

Esker itzultzen darotzut
 zeure iaiaetxean,
 Lohyola iauregiko
 aldare aitzinean.

Arren, bada, errezibi
 zazu onen partera
 zeure hizkuntzan bihurtzen
 darotzudan eskerra.

Esparantza hartan neure
 bihurtzen naiz etxera,
 Franzia erresuma noble
 frontieraren aldera.

Aditu, beraz, Ignazio,
 o saildu dohatsua,
 zuretan zaren ene
 ararteko hautua.

Halabiz:

FIÑA